

116 -117. zk.

2002ko
abuztua-iraila



Gasteizko Eustaldunon Aldizkaria

GASTEIZKO JAIK 2002



Franko itundua 48/27



AISIALDIA



Arriaga Megadenda, liburudenda bat baino askoz gehiago.



liburudenda



paperdenda

musika



bulego altzariak



ofimatika



informatika



enpresa opariak



**INFORMATIKA
ETA OFIMATIKA**


San Antón enparantza, 7
☎ 945 269 033



**LIBURUDENDA ETA
PAPERDENDA**

San Prudentzio, 7
☎ 945 144 501

ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA LIBURUAK SALGAI!!!



Arabako euskal jatorriko toponimiak antzinako biztanleen iragan euskalduna erakusten digu. Baina, errealitate hau baieztatzen duten bestelako lekukotzak al daude? Gure arbasoek menderik mende gehien erabili ohi zuten hizkuntzaren aztarnarik utzi al dute? Erreferentzia zein idazkirik utzi al digute? Zer eman du Arabak euskararen historian? Zer euskara mota mintzo zen?...

...Zalantza hauek guztiak liburu honetan argitu ahal izango dituzue. Edukietan aberats eta bisula oso, dokumentu original ugari, argazkiak eta mapak dituela. Gure, zure, historiaren atal garrantzitsu hau ezagut dezazun, eta aldi berean, emandako datuen bitartez -Aktak, kontu-liburuak, noblezia espedienteak, testamentuak, ezkontzak, inkisizioaren epaiketak, arabarren euskarazko idatziak,...- egiaztatu Araban euskara erabilpen orokorreko hizkuntza izan dela, mende askotan zehar gehienena izaki, eta hainbat garai eta zonaldetan ezagutzen eta hitz egiten zen bakarra.

- 2 liburu dira: bat EUSKARAZ, bestea GAZTELERAZ
- 256 orrialde
- Salneurria: 19,8 € (liburudendan)
- PREZIO BEREZIA HARPIDEDUN eta BAZKIDEENTZAT (bulegora etorrita): 17,5 €
- Honako liburudendetan salgai: Casa del Libro, Zuloa, Arriaga, Albeniz, Ayala eta Study (Gasteizen). Gasteiztik kanpo: liburudenda nagusietan

EZAGUTU ZURE HISTORIA!!

IRAGANAREN EZAGUTZAK ETORKIZUNAREN INDARTZEA DAKARRELAKO!

**ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA
ERAKUSKETA IBILTARIAk udan ere aurrera darrai:**

• LANTARON:
Uztailak 13-25

• EKORA:
Uztailak 26-Abuztuak 12

• LEZA:
Abuztuak 14-Irailak 2

• LANGRAIZ OKA:
Irailak 14-29

**116 - 117. zk.
2002ko
abuztua eta iraila**

**LEHENENGO ATALA:
JAIEZ MINTZO...**

**5. ORR:
AURKEZPENA**

6-9. ORR.:
...BERTAKOAK BERTATIK
IÑAKI LANDA Zeledon ohia, eta honako
aktoreak: CARMEN SAN ESTEBAN, TXEMA
BLASCO eta GORKA AGINAGALDE

11-17. ORR.:
...BERTAKO KIROLARIAK
ALMUDENA CID eta ORTZI ACOSTA
gimnastak, ENEKO eta IKER POU
eskalatzaileak, AITOR PINEDO pilotaria,
NEREA RUPEREZ eta LEIRE GARCIA DE
ESTIBALIZ sorosleak, ARANTZA LOPEZ
MARUGAN mendizale eta idazlea, AITOR
IDIGORAS txirrindularia eta GORKA
MENDAZA futbolaria

18-19. ORR.:
...BERTAKOAK KANPOTIK
INMACULADA SARATXAGA orkestra
zuzendaria, UNAX UGALDE eta NATXO VAL
aktoreak eta IKER ITURBE saskibalo
jokalaria

20-21.:
...KANPOKOAK GASTEIZTIK
MARINA CEDRO kantaria eta NATALIA
NOTCHEVNAIA gimnasia entrenatzailea

22-23.:
IRITZIA
"Txupinazoaren polemika, edo nola piztu
liskar funtsgabea"
(Jose Enrique Bert Arretxea)

24-26.:
JAI EGITARAU-2002



ZULOA IRUDIA

LOS ARCHIVOS DE THE SPIRIT

(The Spirit-en artxiboa)

Denak erakusten ditu The Spirit-en artxiboa, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia...

LIBURU ETXEA CASA DEL LIBRO

ERABATEKO SUKALDEA

(Leke sukaldetako liburua)

Denak erakusten ditu The Spirit-en artxiboa, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia...

LIBURU ETXEA CASA DEL LIBRO

LAS AVES DEL PARQUE NATURAL DE GORBEIA

(Gorbeia Natur Parkeko hegaztiak)

Denak erakusten ditu The Spirit-en artxiboa, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia...

PHOE2 FEMENINOS

Denak erakusten ditu The Spirit-en artxiboa, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia...

KOMIKIAK

IRUDI LIBURUAK

Denak erakusten ditu The Spirit-en artxiboa, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia...

MAROKOTIK MALIRAE

Harea eta urrezko bidaiak

Afrikan barrena margibila zaituzte, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia...

LIBURU ETXEA CASA DEL LIBRO

ERABATEKO SUKALDEA

(Leke sukaldetako liburua)

Denak erakusten ditu The Spirit-en artxiboa, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia, eta horien bidez, irakurleak ezagutu dezake The Spirit-en historia...



116 - 117. zk. 2002ko abuztua eta iraila

BIGARREN ATALA: AISIALDIA

27. ORR:
AURKEZPENA

28-33. ORR.:
LIBURUAK ERE UDARAKO DIRA! Irakurtzeko proposamen desberdinak Gasteizko zenbait liburudendaren eskutik

34-36. ORR.:
BIDIAK V. MAROKOTIK MALIRA, Juan Zabalaren eskutik

38-43. ORR.:
AISIALDIRAKO JARDUERAK GASTEIZEN: dantza garaikidea, euskara, aretoko dantza, Afrikako dantzak, GAPa, saltsa, trikitixa, merengea, flamenkoa, aerobik, Capoeira, Hip-hop...

44. ORR:
ZEUK AUKERATU!

45. ORR.:
TXOKO BERRIA!!! SUKALDARITZA TXOKOA HIRURAK JATETXE EKOLOGIKOAREN ESKUTIK

46. ORR.:
IÑIGO SARASOLAREN KOMIKIA

GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Aldizkariko batzordea:** Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa: Dalvez. **Marrakziak eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Ernesto Murillo 'Simonides'. **Kolaboratzaileak:** Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankoe Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilaletariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoan erantzukizunik.

Euzko Jaurlaritzako Kultura Saila

EROSKI

Arabako Foru Aldundia

Euzko Legebiltzaria

Euzko Legebiltzaria

JAIEZ MINTZO...

Jaiak datoz eta aurten otu zaigu, batetik, Gasteizen 'ospetsuak' diren horiekin mintzatzea eurek festak nola bizi dituzten ezagutzeko, eta bestetik ere, **kirolariengana** gerturatu nahi izan dugu, euren planak konta diezazkiguten. 2000ko jaie-tako alean 'ezezagunengana' hurbildu ginen, eta oraingoan beste aldea ikutu nahi izan dugu.

Ageriko diren lagunak gure orrietara ekar genitzakeen lagun guztien ordezkari-tza bat baino ez dira, atera nahi genituzkeen ororentzat tokirik ez baitago. Bestalde, esparru desberdinak ordezkatzeari izan da gure asmoa.

Honela egituratu dugu, hortaz, esku artean duzun ale hau:

Batetik, 'bertakoak bertatik' atala: **atal** hau osatzen ari ginela izugarri zerrenda luzea atera zitzaigun, baina denei tartea ezin egin. Gogoan izandako asko gainera urte hauetan zehar aldizkariko orrietan present egon dira, eta ale honetarako gurean "berriak" diren horiei lehentasuna eman diegu, aiantzi barik jakina bertakoen zerrenda luze hori. Hona hemen, besteak beste, izen hauetako batzuk: Zeledon berri Gorka Ortiz de Urbina, Eloi Beato aktore, gidoilari eta zuzendaria, Josean de

Miguel, Txubio Fdz. de Jauregi, Jose Ruiz de Azua, Jon Gabella edota Belen Nevado aktoreak, Tinieblas Gonzalez zine zuzendaria, Idoia Zabaleta dantzaria, Micaela Portilla ikertzailea, Mikel Valverde eta Agurtzane Villate irudigile eta kolaboratzaile oihak, Paquita Vives eta Paloma Manzanos Arreal historialariak, bertako artistak (egun gure kolaboratzaile dugun Simonides esaterako), bertako idazleak... etab.

Kirolariei dagokielarik, kirol desberdinen zenbait lagun aurkezten dizkizuegu, garbi izaki **beste izen ugari ere ager zitezkeela**, baina hemen ere nahi eta ezin, batetik guztiontzat tokirik ez dagoelako eta bestetik euren zereginetan zeharo murgildurik zeudelako. Eta makina bat izen falta izateaz gain -aurreko atalean legez luze joko lukeen zerrenda, hala nola Glz. de Galdeano anaiak, Beloki, Juan Vallejo, Juanito Oiarzabal, Alberto Zerain, Irati Anda, Eduardo Martinez, Adolfo Madinabeitia mendizaleak, Nalda pilotaria, besteak beste... (hemendik gure agurrik beroena zendutako Mikel Ruiz de Apodaka mendizaleari)-, bai futbolari emakumezkoen ordezkari bat ekartzea gustatuko zitzaigukeen, baina hauek ere Gasteiz Cup-ean murgildurik, ezinezkoa harapatzea.

Bertakoak kanpoan atalean, gauza bat dela bestea dela kanpoan dauden horiei tartetxo bat gorde nahi izan diegu; hemen ere gutxi batzuk aurkezten dizkizuegu, guztion ordezkari.

Eta jada amaitzeko, **atzeritarren txo-koan** ere lagun desberdinak ukitu dira, bereziki Baskonia eta Alaves-eko jokalaria, baina oporrak zirela medio euren herrietara abiatuta zeuden, beraz, ezin izan ginen nahi genuen guztiekin mintzatu. Halarik ere, bi ordezkari interesgarri oso dakartzkizuegu atal honetan.

Eta amaitzeko ohar txo bat: hemen daukazuen eta ager zitezkeen lagunetako hainbat gure aldizkarian ageri dira azken urteetan barna. Askorekin ere euskaraz mintzatu gara... Araba, Gasteiz gero eta euskaldunago diren isla? Eta biziki poztu gaituenak Geu-rekin izateko erakutsi prest egotea.

Mila esker guztioi, beraz, eta orrialde hauek agertzen ez diren horientzat ere balio bezate!

e.b.z.

Atal honetako testuak:

Josune Velez de Mendizabal

Argazkiak: Edorta Sanz

GAUERDIKO ZELEDON



SIMONIDES

IÑAKI LANDA,

“Nire lehenengo jai lasaiak izango dira aurtengoak”

Iñaki Landak ez dauka aurkezpen beharrik, ia 22 urtez Zeledon izandako arabar hau egun ere gogotsu eta alai agertzen da jaien inguruan hitz egiten denean. Jai egunetarako plan berezirik ez duela aitortzen duen arren, “data hauetan Gasteizen baino hobeto non egongo zara?”, dio bere buruari.

Parrandarako gogoia desagertu ez zaiola, seme-alabak bide beretik datozkio Iñakiri, “seme-alabak gaztetxoak diren arren ‘gaupaseroak’ jaio dira”. Baina urte hau berezia izango da Iñakirentzat. Zeledon ohiak azaltzen duenez: “iaz Zeledon izan ez nintzen arren, ez ziren jai lasaiak izan; komunikabideetan egunero izan bainintzen eta egin ez nuen gauza bakarra plaza gurutzatzea izan zen”. Hortaz, aurtengoak lasaiak izatea espero du Iñakik. “Dena den, oraindik martxa handia daukat eta jaiak oso oroitzapen onak dakarzkidate gogora -azpimarratzen du; bost egunak ziztu bizian pasatzen zaizkit niri”. Andre Maria Zuriaren ospakizunetan esperientzia handiko gizon honek aipatzen duenez, “lehen eta oraingo jaien arteko aldea ez da hain handia, jaiak ez baitira aldatzen baizik eta jendea; hala nola,



Zeledon ohia

orain blusen joate-itzultzea ikustean ez zait buruan sartzen nola egon nintekeen gaztetan ni hor, baina, aitzitik, gaztetxoan ikuspuntutik pentsatuta, ulertzen dut beraientzat hor egotea onena dela”.

Pasartean artean Iñaki Landak milaka izatea ez da arraroa, bai ordea bakarra aukeratzea. Ondorioz, honako bi xelebrekeria ekartzen ditu gogora, biak blusen kontuekin lotuta, harritzekoa ezta! “Behin Dato kalean kontrako norabidean furgoneta zahar batean gindoazela udaltzainekin egin genuen topo, gutako norbait udaltzainetako bati gaizki esaka hasi zitzaion eta komisaldegian bukatu genuen -barre egiten du-. Nik bitartekari

lana egin behar izan nuen, orduan Zeledon egiten nuen lehen urtea baitzen, eta eragin txiki horri esker aske utzi gintuzten, eskerrak...”. Hori batetik, baina hau ez da guztia, Arka plazan abuztuaren 6an dantzaldia dagoela konturatuta egongo zineten, ezta?... Ekintza hau “Okerrak” blusa taldeari zor diogu: “horrelakorik ez zegoen garai horretan eta guri bururatu zitzaigun Eharin zegoen eszenatokia bertan muntatzea -dio blusak-; hainbeste zarata egin genuen, udaltzainak etorri zirela ekintza bertan-behera uzteko asmoz, baina orduko jaien zinegotzi Mataukok gure alde egin zuen eta azkenean dantzaldiak aurrera egin zuen”.

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

**"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"**

K U L K I

www.kulki.org

CARMEN SAN ESTEBAN,

aktorea

“Parte hartuz jaiak gozatzeko dira, eta ez gainotzekoek gu diberti gaitzaten zain egoteko”

Geroa, Siroco, Callejon del Agua eta La Machina antzerki taldeetan izandako eta egun Trapu Zaharra-ren partaide Carmen San Esteban gasteiztarra telebistan ikusteko aukera ere izan dugu (Señorío de Larrea, El Comisario, Hospital Central...), eta honetaz guztiaz gain, hiriko hainbat ikastetxetako taldeetan interpretazio klaseak ematen ere aritzen da. Lanpetuta gero, hortaz, lanean tokatzen ez zaionean Gasteizko jaietan egon ohi da Carmen, jaiak ez dutela bere bizitza markatzen aitortzen badu ere, eta “datak aparte utzita batzuetan arrazoi txikiak ere festa bilaka dezake giroa”.

Kaleko postuak ikusi, giroaz gozatu eta “egongo balira” kontzer-tu eta ikuskizunetara joatea atsegin du Carmenek: “izan ere, jaietako egitarautik txosnetara joan ohi naiz, ofiziala baino gehiago interesatzen

zait eta”. Azpimarratzen duenez, “hiri honetan, eta jaietan gauza bera, ikuski-zun onez gozatzeko aukerak urriak dira... Beste leku batzuetara joan beharko dugu hauek ikustera?”. Ildo beretik, Carmenek dio, “nahiz eta Su ta Gar-en zalea izan ez, nahikoa da ‘nazionala izateaz’ eta ezer gertatuko ez bailitzan halako erabakiek aurrera jarraitzeaz... Ez dut sinetsi nahi zezenek, futbolak, telebistak eta ‘triumfo’ operazioek besterik ez dituztela mendiak mugitzen -adierazten du-; tamalez eta antza denez, lege-aginduz, gero eta zailago suertatzen da arauetatik irtetzea eta era konprometitu batean sortzea



eta bizitzea. ‘Tradizioen artean’, halaz ere, barraketako ardo goxoa, eskopetarekin tiro egitea, eta atrakzioetan ibiltzea da Carmen gehien gustazen zaiona, baita aspaldiko partez egon ez den lagunaren artean ciceronearena egitea ere. “Parte hartuz jaiak gozatzeko dira, eta ez ikusten edota gainotzekoek gu diberti gaitzaten zain egoteko”.

PIPERAL
TABERNA

Egunditan, asteleneretik ostialera

JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL- 945 27 68 33

MIKO
Izozkiak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

“Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak”
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

ITURRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK IGANDERA
IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

TXEMA BLASCO,

aktorea

Zinemaren proiektaturiko 50 izenburutan parte hartu du, telebistan 66 telesailletako ataletan agertu da, antzerki aktore 29 muntaketatan eta frisoen ('bambalina') atzean 23 antzezlanetan aritu da; eta sariak, amaigabeak. Zenbaki saltsa honetan gustura eman du Txema Blasco arabarrak bere bizitza eta bere hitzetan, "orain erreserban nagoela Gasteiza festak bizitzera joatea gustatzen zait; orduan poltsikoan daramadan gaztetasuna bizitzen dut berriro, batzuetan goizetik goizera".

Txemaren ikuspuntutik, batik bat Gasteizko festen oraina eta iraganaren arteko desberdintasun nagusia hainbat blusa talderen "gehiegizko gaztetasunean" datza; "jaietan 'beharrezkoa' da edatea baina are beharrezkoagoa da 'edaten jakitea' -dio aktoreak-; blusen joate-itzultzean taldeak bata bestearengandik urruntzen dira modeloen erakustaldia bailitzan eta honek luzeegi eta aspergarri bilakatzen du". Ondorioz, Txemak faltan botatzen dituen gauzeengatik galdetzean honako hau erantzuten du: "festa gehiago, politika gutxiago, berrietasunak egitarauan eta lapurrak eta festetako izorraztaileak astebete joan daitezela Txinako Errepublika Popularrera".

"Oraindik poltsikoan daramadan gaztetasuna bizitzen dut festetan"



Lana dela eta, urteak dira Txemak txupinazoa zuzenean ikusten ez duela, baina hala eta guztiz ere, "nagoen lekuan egonda ere, urteroko abuztuaren 4an, arratsaldeko 6etan, grabazioa eten egiten da puruak banatzeko eta, urrunean bada ere, jaien hasiera ospatzeko -adierazten du-. Gogoratzen dut behin Antena 3-eko zuzendari batek

aluzinatu zuela platoan geunden guztiak erretzen ari ginela ikustean, baina zergatia azaltzean festa giroaz jantzi ginen". Kaleko giroa, merkatuetan kuxkuxean ibiltzea, txarangen doinuez bustitzea eta oro har "zorionez" oraindik herrikoak diren jaiez gozatzea du gustuko aktore handi honek.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

GORKA AGINAGALDE,

"Chenoaren ordeztu Marta Sanchez ikustera joango naiz tomate pare batekin..."

aktorea

(Oraindik Los Secretos taldea etorriko zela iragarri gabe zegoenean)

Hogeita hamasei urte eta umore handiko gizona Sobradun talde gasteiztarren kide eta sortzaileetako bat den Gorka Aginagalde dugu. Film, telebistako telesail edota antzezlanetan Gorkaren lanak, fresko-tasunez eta errelitatez beterikoa, ikusleengan barre eragiten du. 1994. urtetik Jon Gabella, Iñaki "Rodaballo" eta Eloi Beatorekin batera osatu Sobradun antzerki egitasmoarekin aurrera jarraituz, euren ibilbidean "Herminio eta Miguelito", "30 millones de gilipollas", "No hay güevos" eta "Hablar es de bobos" izenburuekin arrakasta lortu dute gasteiztarrek.

Iaz Madrilan, duela pare bat urte Donostian eta aurrean akaso hemen egongo da Gorka festa garaian. Horrela bada behintzat, "saltsara" irtengo da Aldapatik poteatzera. "Denetik egiteko asmoa dut, goizetik gauera arte, egun guztiak pasatuz lehenengotik azkenera... nik ez baitut lorik egiten". Kaleko giroa atsegin du Gorkak eta txoko guztietatik dabil, hala nola, Matxetetik buelta ematea beharrezkoa da,

"bertan txorizo, sagardo eta gazta ona baitago". Baita dultzaineroak ere; izan ere, Gorka inoiz dultzaineroekin izan da atabalari: "batzuetan jaietan tabernan lan egin izan dut, eta gau osoa lanean eman eta gero, dutxatu, atabala hartu eta dianetara joan izan naiz". Udalak prestatutako egitarauari dagokionez, Gorka ezingo da bertan behera geratu den Chenoaren kontzertua ikustera joan, baina bai, ordea, hau ordezkazten duen Marta Sanchezenera: "Marta Sanchez ikustera joango naiz tomate pare batekin". Gazte honen bizitzan umorea nagusi, pasarteetan artean bat otutzen zaio: "behin 'hankabeltz' batek zera esan zidan -'zerbait solte daramazu?', eta nik erantzun nion -'non?', eta aurrera egin nuen; mutilak ez zuen harrapatu hamar minutu pasatu artean eta, orduan, geroago berarekin topo egin nuenean 'putaseme' oihukatzen hasi zitzaidan".



Sobradun taldeko kideak: Iñaki "Rodaballo" (Kide ohia), Eloi Beato zuzendaria, Gorka bera eta Jon Gabella (ezk. esk.)

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitez !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi

samurretan espezialduak

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundación

POU ANAIAK,

eskalatzaileak

**“Suitzatik jai
on batzuk izan
ditzazuela
desiratzen
dizuegu, baita egun
hauek ahal bezain
euskaldunak
izatea ere”**



Pou anaiak naturarekin lotuta dauden gazteak ditugu; euren izenak aldizkari espezializatuan maiz irakur daitezkeen horietakoak, mendia, eskalada, eskia eta alpinismoa egiteaz gain, ikastaroak ere ematen baitituzte; baita proiektzioak eta hitzaldiak eman eta udalaren rokodromoetan lanean aritu ere. Euren azken zereginen artean telebistarako filmak egitea dago, eta honek Naranjo de Bulnes-era eraman ditu, El Pilar del Cantábrico deritzon bidera, alegia. Han “Al Filo de lo Imposible” programarako filmazioa egiten ibili dira Iker eta Eneko.

Gutxitan izaten dira Iker eta Eneko Gasteizen data hauetan, eta aurtun ere kanpoan izango dira, Suitzan hain zuzen ere, zailtasunezko bide batzuk frogatzen. “Dena den, posible bada, beti gustatzen zaigu behintzat lehenengo bi egunetan gelditzea, iaz egin genuen bezala”, diote mendizaleek, “giroa oso ona da eta beti primeran pasatzen dugu”. Aitortzen dutenaren arabera txikiak zirenetik (“oraindik ere txikiak izaten jarraitzen dugu”) ez daukate jaien inguruko gomuta berezirik “beti mendian geundelako, Pirinioetan edo Alpeetan, “baina oso ondo gogo-

ratzen dugu nola bazkaldu ostean 6ak jotzean, bai kanpinean edota mendian bertan, txanpaina atera eta jaien hasiera ospatzen genuen”; eta egun ere ahaztu gabe abuztuero horrela egiten jarraitzen dute. Berezioki gogoratzen dute Pou anaiek 2.000. urteko jaietako abuztuaren 4a: “gure Kanadarako irteera hasi baikenuen; jaiekin batera gure momentuko ametsa hasiera zihoan-eta”. Azkenik, eta Suitzatik, Pou anaiek “jai on batzuk” desiratzen dizkigute eta egun hauek “ahal bezain euskaldunak izatea” ere opa dute gas-teiztarrek.

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

ALMUDENA CID,

gimnasta eta aurtengo

“Pregoia egiteko orduan orain arte egin ez den zerbait egin nahi nuke, sorpresa alegia”

pregonari

Hogeita bi urte dituen neska honek hamabost zituenetik praktikatzan du gimnasia profesionala. Ordutik bere izena argi propioarekin piztu da mundu osoan zehar, izan ere, gasteiztar honek markak hautsi ditu: Bost mundialetan, bi Olinpiadatan eta Espainiako zortzi txapelketatan parte hartu du Cid-ek, horietatik bostetan garaile atera dela gasteiztarra. Orain jaiak datozela Almudenak esperientzia berri bati egin behar dio aurre, zazpi urteko hutsunearen ondoren berak agurtuko baititu aurtengo jaiak.

Duela zazpi urte Gasteizko jaietan ez zela egoten eta aurtengo jaiak modu bikoitzean izango dira Almudenarentzat berezi: “Alkatearen deia jaso eta ezin sinetsi, Gasteiz osoa

nitaz harro zegoela esan eta pregoia egin nahi nuen galde-tu zidan. Amaitu baino lehen baietz esan nion, ohore bat da niretzat”. Abuztuaren 2an Almudena Cid pregoia egiteko arduradun izango da eta bere hitzetan, “nahiz eta hitzaldia egiten lagunduko didaten niri zerbait berezia, desberdina egitea gustatuko litzaidake..., sorpresa, alegia”. Aspaldiko partez gaztetxo honek bere herriko jaietz gozatzeko parada izango du, “dena den, gauetz martxa egiteko ohiturarik ez dudanez denetik egin eta ikusi nahiko nuke, baina zaindu beharko dut”. Begiak Granadan dituela Almudenak ez baitu ahazten azaroan Europako txapelketa zain duela.



AITOR PINEDO,

pilotaria



“Abuztuaren 2an ezkontzen naizenez lehenengo aldia izango da jaietan ez naizela egongo”

ORTZI ACOSTA,

“Ni bertan egongo ez **gimnasta izatetik...**

naizen arren, kanpoko lagunak etorriko dira Gasteiza”

Hogeita sei urte ditu eta bere bizitza osoa, zortzi zituenetik, alegia, gimnasiari dedikatu dio. Euskadiko selekzioarekin zortzi bider egon da Espainiako Txapelketan, Espainiako Txapelketetan bost bider irabazle eraztun modalitatean, zazpi urtez Estatuko taldean, hogeita bost bat nazioarteko lehiaketatan parte hartu du, eta Europakoan ere hiru urtez izan da Ortzi Acosta. Lesio baten erruz Ortzi ezin izan zen Munduko Txapelketara joan eta, ondorioz, Espainiar selekzioaren hiru-garren izatetik zazpigarrena izatera pasa zen, bere ustez “honek munduko hirurehun eta koska izatea esan nahi du eta ez du merezi”. Gauzak horrela, bere bizitzako lehen fase hori erre duen heinean, egun zineko espezialista lanetan dabilta murgilduta gasteiztarra.

Azkenengo urte t’erdia Bartze-lonan pasa du Ortzik “Notre-Dame de Paris” izeneko musikal bat egiten: “Ondo pasa dut akrobaziak egiten;

polizien irudia, ijito-en borroka... interpretatu ditugu bertan”. Orain, aldiz, Montrealen dago lau hilabetez “Le Cirque du Soleil” ikuskizunarekin lan egiten, “orain dela hiru hilabete egin nuela casting-a; Gasteizko jaiak bertan pasatzea espero nuen eta begira, azkenean ez da horrela izango”. Ortziri Gasteizko jaien alaitasuna eta “onda ona” gustatzen zaizkio, “onena jateko, lo egiteko edota edateko ordutegirik ez dagoela da”. Gazteak festak bertan igaroko ez dituen arren, urtero gonbidatu izan dituen lagunak hauek ospatzera gerturatuko dira hiriburu gasteiztarrera, “kanpoko adiskideak dira, dagoeneko giroa ezagutzen dutenak eta dena prest dute egun hauetan hona etortzeko”. Ortzik festak pertsona eta, batez



ere, neska berriak ezagutzeko garai ona direla uste duenez, behin “aspertuta” zegoela pinua egiten jarri eta orduan bost neska gerturatu zitzaizkion: “egin beharrekoak ere neskekin hitz egin ahal izateko!”. Zine-espezialista lana..., bai interesgarria, ezta? Ortziren nondik norakoen adibiderik ikusi nahi izanez gero, ez ezazue ‘zapping’ik egin iragarki tartean: Robin Hood eta sakeleko telefonoarekin zerikusirik duen batean, hain zuzen ere, arrisku-saltorik dagoen konturatu al zarete?!


Txikitatik hasi zen Aitor Pinedo kantxetan gogor, pilota eskolan hasi eta ordutik 27 urteko pilotari honek gustukoa duen kirola bere lanbide bihurtu du. Ingeniaritza ikasketak bukatu eta orain dela bost urte profesionaletan egin zuen debuta, “edozein kiroletan bezala ona bazara 35 urte arte iraun dezakezu, baina hau bukatzen denean bizi ahal izateko beharrezkoa ikusten dut ikasketa batzuk izatea”. Hala eta guztiz ere, Aitor sasoi onean dago orain eta lortu duen guztia bere aitari eskertzen dio: “Bera arduratu baita hara eta horra eramateaz betidanik”.

Udan, alabaina, pilotarien garai gogorrena hasten da, “edonon baitira jaiak eta erakustaldi ugari egin ohi ditugu”. Beraz, Aitorrek Gasteizko jaiak nahi beste ez ditu gozatzen: “lehen

Zeledonon jaitsierara joaten nintzen, baina dagoeneko ez dut egiten; lasai asko egon arren ez duzu irudi ona ematen eta”. Betidanik gustatu zaio Aitorri lagunekin igarotzea jai egun hauek, kontzertu bereziak, blusen joate-itzultzea ikustea, betiko lekuetan ibili, Alde Zaharrean, Aldapan..., alta azken aldian ez da asko atera, batez ere profesionaletan hasi zenetik. Haatik, aurtengo plana berezia da oso: “Lehenengo aldia da ez ditudala jaiak Gasteizen igaroko; izan ere, aurtun abuztuaren 2an ezkondu egiten naiz... -dio Aitorrek zoriontsu-, eta nahiz eta bidaia osoa ezin izango dugun egin egun batzuk hartuko ditut. Beraz, hortik gaudela txanpainarekin ospatuko dugu jaien hasiera”.

ARANTZA LOPEZ MARUGAN, mendizalea, idazlea

**"Gaua baino eguna
nahiago dut,
baina gustura
nagoenean erraz
korapilatzen naiz"**



Arantza Lopez Marugan gasteiztarak Mendi, Bidaia eta Abentura literaturako III. Desnivel Saria eskuratu zuen iaz "Cuerdas rebeldes" izeneko liburari esker. Aurten egitasmo berri batean lanean ari dela eta, Gasteizko jaiak bertan emango ditu: "Lanean geldituko naiz; Himalayari buruzko liburua idazten ari naiz eta nire oporrak orrien bitartez bidaiatzea izango dira, batere gaizki ez dagoena".

Urtearen arabera Arantzak data hauek bertan edo kanpoan ematen ditu, baina berak aitortzen duenez, "gero eta gutxiago gustazen zait

abuztuan bidaiatzea, hortaz, jaietan gero eta gehiagotan nago, eta kanpoan tokatzen bazait modu batez edo bestez ospatzen ditut". Gainera, mendizaleak onartzen duenez jaien onena, kalean denbora gehiago ematen duzunez, jende askorekin topo egiten duzula da. Aukerarik aukera, Arantzak dio, "blusak zaharkituak gelditu direla pentsatzen duen pertsona horietariko naiz, tunoen modura; XXI. mendean ez baitaukate tarterik. Izan ere, ez nago batere ados euren parrandak diru publikoarekin finantziatu behar izatearekin. Sentitzen dut, baina nire juergak

nik ordaintzen ditut". Bestetik ere, Udalak antolatzen dituen kontzertuak "ihesari ekiteko" modukoak dira, bere aburuz. Bai, aitzitik, fanfarreak dituela gustuko: "hauek baitira benetan jaia alaitu eta jendea mugiarazten dutenak".

Bere planen artean, "goizez Kutxitik bermuta hartzera irten, lagunekin edo familiarekin bazkaltzera joan eta gaez txosnetatik bueltaxo bat ematea". Haatik, eguna gaua baino nahiago duen arren, "gustura nagoenan erraz korapilatzen naiz", guztiz gain Rolling-en musika jarritz gero.




**Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

GORKA MENDAZA,

Aurrera taldeko futbolaria

“Lehen ‘Los Silenciosos’ blusa taldean ateratzen nintzen”



Futbolaz gain, musika entzutea, zinemara joatea eta lagunekin egotea ditu gogoko 23 urteko futbolari honek. Aurrera taldean 2. mailan jokatzek, berriz, parranda egiteko aukera gutxi uzten dio Gorka Mendazari. Are gehiago egoera honi egunero entrenatzeaz gain enpresaritza ikasketak egiten dituela gehitzen badiogu. Hortaz, eta salbuespen gisa, abuztuaren 5ean jaia izanik Gorkak Zeledonon jaitsiera lagunekin gustura ospatzen du: “Dena den, kontrolatu eta zaindu behar duzu, bestela kirola eta jaia ez dira osagarriak”.

“Jende asko gauez bakarrik irtetzen da eta ez da hori bakarrik -dio Gorkak-; ni, aldiz, arratsalde partean irtetzen naiz gehiago, hurrengo egunean entrenatu beharra

daukat eta”. Gauzak horrela, barraketan ibiltzea, Alde Zaharretik bueltatxo bat ematea eta blusen joana eta etorria ikustea dira jaietan Mendazaren egitarauan gehien errepikatu ohi diren ekin tzak, azken honek batez ere oroitzapen onak ekartzen dizkiola gazteari: “Lehen ‘Los Silenciosos’ blusa taldean ateratzen nintzen, baina futboleant entrenatzen hastean utzi behar izan nuen”. Gorritxo honen aburuz, “blusaz irtetzeak jaia modu bereziago batean ospatzea ahalbidetzen du”. Gasteizko jaie tako giroari uko egin ezinik, Gorka ondo antolatzen da eta goiz doa etxera: “Orain dela bost urte luzatu zitzaidan gaua eta hurrengo eguneko entrenamenduan ez nuen batere ondo pasa”. Orditik dexente koxkortu da Gorka Mendaza.

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

NEREA RUPEREZ ARTAMENDI ETA LEIRE GARCIA DE ESTIBALIZ,

sorosleak

“Txupinazoa gure modura antolatzen dugu urtegian, panpin, txanpain... eta guzti”

Udan eguraldi ona dugu atsegin, eguzkia hartzeko, piszinara joateko edota urtegian murgil egiteko; gure atsedean garaia ondo antolatzen dugu, beraz. Baina ‘txanponaren beste aldean’ dauden horietan fijatu al gara inoiz? Horiek sorosleak dira, eta uda osoa eguzkipean lanean aritzen diren horietakoak hain zuzen ere ditugu Nerea Ruperez eta Leire Garcia. Urtegiko zaintzaile zortzi ordu egunero, astelehenetik igandera eta ekainetik iraila bitartera..., eta jaiak?: “lan orduetatik kanpo edota umore onez lan orduetan”.

Aukeran piszinetan aritu baino urtegian egon nahiago bi gazte



Nerea Ruperez.

hauek, “pertsona bakarra egon beharrean bi lankide gaudelako gehienbat”. Festa garaiari dagokionez, Nereak iaz ezin izan zen txupinazoaz gozatu Andre Maria Zuriaren plazan; Leirek, ordea, duela bost ez duela egiten. Haatik, urtegian “egun honetan inor ez dagoenez, gure modura ospatzen

dugu, panpina postutik zuhaitz batera eskegi eta txanpainarekin topa eginez”, diote neskek. Baina ez pentsa jai guztiak horrelakoak direnik, “talde asko gaupasa egin ondoren pantanora joan ohi dira, pedaloak hartu eta (ja, ja, ja)..., pertsonaje bitxiak ikusten dira...”. Leirek eta Nereak beren lanpostuan

bukatu eta korrika etxera joan, arropaz aldatu eta jaia bizitzera irtetzen dira, “txarrena heltzen zarenerako lagunak girotuta dau dela da”. Gaez parranda eta goizen lan, uf!...: “ez da erraza, baina lankide on bat izanez gero goizak ez dira hain gogorak”.

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE EUSKAL DENDAK

AITOR IDIGORAS,

mendi-bizikletako txirrindularia



“Parranda gutxi baina ondo aukeratuak bota behar dira; horretarako Gasteizko jaiak aproposak dira”

kirol mota guztiak egin ditu gazte honek, hala nola, atletismoa, igeriketa, esku pilota, xarea, saskibaloia, mendia, eskalada eta azken urteetan bizikleta, mendi-bizikleta batez ere. Hauetatik Aitorrek azpimarratzen duenez “azken honetan lortu ditut emaitza politenak, hala nola, Euskadiko selekzioarekin zenbait irtenaldi egin ditut, eta estatu mailako Chip-Sport zirkuitua, Monegroseko

ere urtean zehar parranda batzuk bota behar direla uste du gazteak, eta horretarako Gasteizko jaiak aukera bikaina dira: “Hala ere, kirolean emaitza onak lortzeko derrigorrez zaindu behar duzu, eta parranda gutxi baina ondo aukeratutakoak bota behar dira”. Aitor orokorrean Andre Maria Zuriaren jaietan Gasteizen egon ohi bada iaz ez zen horrela izan, Eskozian egon baitzen iragan abuztuan. “Auto-stop eginez ezagutu nuen Eskozia osoa; Zeledon jaitsi zenean, hala ere, garagardo bana edan genuen ospatzeko eta generaman planarekin luxu bat izan zen”.

Bestetik, aukera izan duenean Aitor blusaz jantzi da eta Basatiak taldearekin irten da jaia ospatzera: “Blusa izanda jaiak era desberdinean ikusten dira, nire ustez askoz hobeto, koadrila guztiak berdinak ez badira ere -azpimarratzen du Idigorasek-, izan ere, zenbait taldetako giroa ez dut gustuko”. Aurtengo planen barnean, Alde Zaharrean, txosnetan eta baita Matxete plazan eta euskaldun giroan egiten diren ekintzetan ere murgiltzea daude.

Duela hogeita sei urte Oñatin jaio bazen ere betidanik bizi izan da Gasteizen Aitor Idigoras. Gasteiztar honen zaletasunen artean kirola da nagusi eta bereziki mendi bizikleta. “Kirola betidanik egin izan dut, oso txikitatik, etxean betidanik izan dugu kirolerako zaletasun handia”, dio Aitorrek. Izan ere,

maratoia eta Bennisimeko lasterketa irabazi ditut aurren. Euskadiko Openean eta Arabako Challengean ere emaitza politak lortu ditut”. Hala eta guztiz ere, sasi-txantxiarra kirolari fina den arren jaietan ere ondo murgiltzen da. “Kirola oso gustukoa dut, baina baita jaia ere”.

Kirolari lehentasuna ematen badio

BESTE ARABA BEHAR DUGULAKO BAZTERKETARI STOP

batasuna

INMACULADA SARATXAGA,

Orkestra zuzendaria

“Jaiak ez dira kulturgintzaren eredu, are gutxiago musika klasikoaren eredu”

Bere bizitoki eta jaioterria den Amurriotik mundu osora barreiatu da Inmaculada Saratxaga Orkestra zuzendariaren eta konpositorearen lana. Gasteizen, Bilbon eta Madrilén eginiko ikasketa bikainek New York, Holanda, Alemania, Italia, Austria eta Londoneko orkestrekin lan egitea ahalbidetu diote. Hori dela eta, Araban baino denbora gehiago ematen du Inmaculadak kanpoan.

Inmaculadak, pertsona lasaia den neurrian, Zeledonon jaitsiera telebistatik ikustea aukeratzen du normalean, “gutziz gain bero handia badago”. Egun hauek Gasteiza gerturatzeko aprobetxatzen ditu, baita senideekin buelta bat emateko ere. Aurtengo jaietarako planak oraindik zeharo lotu ez dituen arren, ekintza kulturaletara joatea dauka lehentasunen artean. “Baina jada jaiak ez dira musika klasikoaren eredu -dio Saratxagak-, eta Gasteizen Auditorio baten falta sumatzen da, non hiriaren mailakoa den testuinguru artistiko-musikalaz goza zitekeen”.

Agenda: Inmaculada Saratxaga eta Enrique Jordá kamerata
Abuztuak 10: Biasteri **Abuztuak 21:** Laudio
Abuztuak 24: Bastida



UNAX UGALDE,

aktorea

“Zeledonon jaitsiera Resinesekin batera purua erretzen ospatu nuen behin”

Gaztea izan arren, dagoeneko Unax Ugaldek ospea zer den badaki. Antzerki klaseetatik azkar pasa zen telebistan agertzera eta hortik zineramarako jauzia ematen ere zortea izan du gasteiztarrek. “Entre dos fuegos”, “A las 11 en casa”, “Periodistas”, “Mi Dulce” eta beste hainbeste izenburuk hogeita lau urteko mutil honen curriculum osatzen dute.

Lana dela eta, Unaxek ez dauka argi aurtengo jaietan Gasteizen izango den. Txikiagoa zenean, aldiz, beti egoten zen hirian eta egun lehen bezala izan ez daitekeen arren “etortzen saiatzen naiz, behintzat egun pare bat”. Etortzen denean lagunekin egotea du gustuko, txosnetan, gurasoekin poteatzen, kontzertuetan..., eta aitortzen duenez batez ere gauzez bizi egiten ditu jaiak: “zoritxarrez edo zorionez blusak etxera doazenean irtetzen gara gu, gauzez alegia”. Baita gau guztia etxetik kanpo eman ere: “etxean gutxi, lo ere gutxi eta kanean, oster, asko”. Unaxek, eza-gun egin den neurrian, jaietan dibertitzea zailago suertatzen dela dio, “lehen errazagoa zen jendeak ez ninduelako ezagutzen, baina hala ere jaietan moxorrotzea ez da zail gertatzen (ja, ja, ja)”. Lehenengo urtea lanean tokatu zitzaiona baimena eskatu zuen Gasteiza etorri ahal izateko, baina ezinezkoa zela esan zioten: “‘A las 11 en casa’ grabatzen ari ginen eta ezin etorri, hortaz, Resinesekin batera purua erre nuen”.



NATXO VAL,



aktorea

“Jaien kontuak urrun xamar harrapatzeaz gain, nahikoa itotzen nau”

Natxo Val aktorea. Japoniatik bueltatu zenetik Madrilén bizi da eta hor bizitzen jarraitzeko asmoa dauka momentuz, “Gasteiza familia eta han utzitako lagun batzuk bisitatzera besterik ez naiz joaten”.

Gauzak horrela, urteak dira Gasteizko jaiak ez dituela bertan igarotzen, “edo kanpoan egon naiz edota hirian bertan egonda ere oso lasai bizi izan ditut”, aitortzen du Natxok, “egun bat edo beste martxa basatian irten izan naiz, baina badira urteak biziki ez ditudala gozatzen”. Zeledoní dagokionez, “bada urte nahikoa ez dudala ez telebista ez zuzenean ikusten”, eta pasarterik pasarte, Natxok gogoratzen du 1997. urteko jaiak Japonian igaro zituela: “beste probintzia askotako jendearekin nengoen, chauvinismo keinu batean Zeledonen jaitsiera hondartzan ospatzea otu zitzaidan... Ajea kristona izan zen”. Natxo ez da ados jartzen jaietatik gogokoen zer duen esateko orduan, “izan ere, jaien kontu honek urrun xamar harrapatzen nau eta egia esateko nahikoa itotzen nau”, eta aurtengo polemika musikari dagokionez, ez diola axola diosku.

Bizitza erdia dedikatu dio 36 urteko gasteiztar honek interpretazioari, 14 urte alegia. Gasteizko, Suitzako eta Santanderreko antzerki taldeetan ibili eta 1997tik 2000 urtera bitartean Japonian izan zen

IKER ITURBE,

saskibaloiko jokalaria

“Duela zortzi urte ez nagoela jaietan”

Iker Iturbe Gasteizen jaio zen 1976ko uztailaren 10ean. Gaztetatik bere altuera eta jokatzeko moduagatik saskibaloian trebetasunez aritua. Ikerrek ikasketak Olabiden bukatu eta laster bilakatu zen saskibaloit talde profesionalen ikusmira. Gauzak horrela, lau denboraldiz jokatu zuen Clemson-eko unibertsitatean eta egun laugarren denboraldia egin du Real Madrid-eko saskibaloit taldean (guk bere garaian argitaratu genuen legez, Baskoniak ez omen zuen Iker fitxatu nahi izan eta).

Ikerren kasuan ere kirola eta jaia ez dira batere osagarriak, eta Gasteizko

jaien “parranda eta giro ona” atsegin baditu ere, badira 8 urte gasteiztar honek ez dituela Andre Maria Zuriaren jaiak ospatzen. “Aurten pentsatzen dut denboraldiaurrea dela bide, berriro ere ezin izango naizela joan”, dio Ikerrek, “hala eta guztiz ere, eta posible badut, behintzat, jaiak hasten diren egunean purua erretzen saiatu ohi naiz”.



MARINA CEDRO,

kantaria

**“Denetik kontatu didate jaien inguruan
eta gogoia daukat hauek ikusteko”**

Ia urtebete egin du Gasteizen eta hama-bost egunetarako etorri zen bisitan Buenos Airesetik Marina. “Lagun bati bisita egiteko asmoz heldu nintzen Gasteiza maleta txiki batekin, eta orain arte”. Musikak gerarazi zuen Marina Cedro gure hirian: “arteak garatzeko aukera ikusi, eta kantuan zebilen jendearekin haremanetan jarritz Ricardo Urrutia gitarra irakaslea ezagutu nuen eta orain ‘Tango dos en uno’ taldea osatu dugu”. Argentinan ere Marinak soul, rock, tango, bossanova, eta denetik kantatzen zuen. “Londresen ikasten ibili nintzen, txikitatik idatzi, abestu eta antzeztu dut, eta azkenik, tangoa hautatu nuen bere musika eta poesia atsegin ditudalako”.

Marinak izugarritzko gogoia du Gasteizko festak bizitzeko: “denetik kontatu didate..., blusa bat janzten da eta jendeak purua erretzen du”,



dio harridura aurpegia jarrita. Egun osoa, gaua barne eta hurrengo goizera arte, etxetik pasatu gabe ematen dutenak ere aipatzen dizkiot: “gau osoa kaletik?”, eta barre egiten

du. Buenos Aireseko jaien parekotasunik izango ote dute gurek? “Han ospatzen den egun bat maiatzaren 25a da, baina ez dauka zerikusirik herritxoetan egin ohi diren ekintzekin, hiri metropolitarretan tradizioak galtzen doaz”, dio argentinarrak, “gogoratzen dut bereziki behin txikitik, bederatzi urte izango nituen orduan, egun horretarako ‘El gato’ deritzan dantza entseiatzen ibili nintzela..., gehienetan mutilaz janzten nintzen”. Beste behin ere bere eskolako irakasle batek Marina hautatu zuen ‘San Martin’ delako ospakizunean poesia bat errezitatzeko: “andereñoak beldurra ematen zidan, baina errezitatzen nindoan neurrian berak besoak irekitzeko esaten zidan eta olerki hura sen-

timendu handiz errezitatzen lagun du zidan; interpretatu nuen egunean zirrara zela-eta negar egin nuen”.

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

NATALIA NOTCHIEVAIA, gimnasia entrenatzailea:

**“Errusiarrek eta euskaldunak ez dira
hain desberdinak ospakizunen kontuetan”**

Hamaika urte daramatza Nataliak Euskal Herri-
an bizitzen; hasieran Iruñean izan zen Anaitasuna klubean eta azkenengo hamar urteak Gasteizen eman ditu, Oskitxo taldean. Bere teknika-
ren fruitua dagoeneko Lorena Fagundez, Paula Orive, Raquel Lopez de Arroiabe eta Beatriz Nogales “urrezko nesken” eskutik etorri zen. Egun Espainiako selekzioarako hainbat neskak entrenatzen ditu.

Hiru urte Stalingradera ez doala, baina gabonetako opor-
rak familia bisitatzeko prestatzen dabil. Orain, oster, Gasteizen gelditzea egokitzen zaio, “egun gutxi direnez jaie-
tan egongo naiz, baina kanpora ere alde egingo dut, izan ere, abuzturen 12an berriro hasten gara lanean”. Nataliak Gasteizko jaiak Iruñekoak beste atsegin ditu: “Nire jaiote-
rrian ez dira horrelako jai herri-
koiak ospatzen, han Aste Santukoak eta Gabonetakoak dira garrantzitsuenak, erlijioz-
koak alegia”. Tradizioak mires-
ten ditu eta gauzak horrela, San

Ferminak ikusi zituen lehenengo aldian txun-
dituta gelditu zen. Gasteizko ohituretatik “bitxi-bitxia” iruditzen zaiona da abuztuaren lauan “jende guztiak, emakumeek, gizo-
nek..., purua erretzea, baita txanpainaren kontua ere -dio barrez-
ka-...; behin nire seme-
ak plazara jaitsi behar zuela esan eta arropa zaharrena jartzeko aholkatu nion, ondo-
ren zuzenean zakarre-
ra botatzeko”. Euskal Herrikoak bezalako ospakizunik ez duela inoiz ere ikusi aitortzen du Nataliak. Bestetik, eta gogoeta modura dio “errusiarrek eta euskaldunak ez dira hain des-
berdinak, janari eta jokoen tradi-
zioan nahiko antzekoak baitira”.



azkarprint
Imprenta / inprimategia

Helbide berria....

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦

Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

TXUPINAZOAREN P

edo nola piztu

**JOSE ENRIQUE BERT
ARRETXE**

*Gasteizko Batasuna
Udal Taldearen bozera-
malea*

A sko gara abuztuaren 4a iritsi, Zeledon etorri eta Andre Maria Zuriaren jaiak hasteko zain gauden gasteiztarak. Zain, sei egun horietan gure arazoek alde egiten dutela ematen duelako, egunerokotasuna alde batera uzten dugulako, egunaren eta gauaren arteko bereizketa galdu egiten delako eta aisiak eta festa gogoak gobernatzen dutelako gure bizimodua egun horietan.

Horregatik, herritarrek ez dituzte ulertzen eta onartzen modu batera edo bestera festen hasiera nahastu nahi dutenak, gure hiriko festak ilundu nahian dabiltzanak. Eta aurten, gure hiriko Alfonso Alonso alkateak festei hasiera gatazka baten bidez eman nahi izan die, otsailetik! suziria pizteko eta, horrela, festei hasiera emateko pertsona duina, egokia nor den edo ez den erabakitzeke eztabaida piztuz.

Polemika are ulertezinagoa da abuztuaren 4ko protagonista nagusia Zeledon dela kontuan hartzen badugu, eta inola ere ez



suziria botatzeko ardura duen pertsona. Alonsok, ordea, ez zuen oharkabea pasa nahi, eta otsailean suziria pizteko txandari buruz 1999an hartutako erabakia auzitan jarri zuen, pertsonen duintasuna eta ekitaldi xume eta sinboliko bezain hunkigarri batean gure hiria ordeztzeko eskubidea aldarrikatuz.

Alonsok txupinazoa politizatzea erabaki du, eztabaida artifizial eta antzua bezain leloa piztuz, soilik etekin politikoa ateratzeko. Alonsori ahaztu egin zaio gure hiriaren ezaugarri aberasgarrienetarikoa bat Udalean sei alderdi politiko desberdinetako hogeita zazpi zinegotzi biltzea dela, guztiak ere gure hiriko aniztasun ideo-

logikoaren adierazgarri; eta lehenengo eta bigarren mailako gasteiztarak daudela sinestearazi nahi izan digu, egiten duzun aukera politikoaren arabera eta udal hauteskundeetan konfiantza norengan jartzen duzun kontuan hartuta.

Gasteizen PPri botoa ematen dioten brusadunak, PSOeri ematen diotenak, EAJri edo UARI ematen diotenak daude, eta...alkate jauna, zuri sinestezi-na iruditur arren, badaude botoa Batasunari ematen dioten brusadunak ere. Eta Batasunari botoa ematen diotenek zergak ordaintzen dituzte, hiriko autobusen atzerapenak jasaten dituzte, edota gure kaleetako zulaketak pairatzen dituzte. Hau da, festek, gure hiriaren

Gure hiriko agintariak zentzu gehixeagorekin jokatuko balute eta gure hiriaren aniztasuna eta pluraltasuna onartuko balituzte, abuztuaren 4a egun handia litzateke. Beste urte bat, berriro jai eta alaitasun giroan sei eguneko baimendutako parrandari eta festei hasiera emateko eguna. Baina alkateak aurtien gauzek desberdinak izan behar dutela erabaki du, okerragoak. Berak ikusiko du!

4 Igandea

18:00 *Andre Maria Zuriaren plazan*
ZELEDONEN JAITSIERA.
19:15 *Udaletxea, Agirre*
Lehendakariaren kalea, Posta kalea eta
Andre Maria Zuriaren plaza
UDAL SEGIZIOA BEZPERETARA
San Migel parrokian
LORE ESKAINTZA eta H.-SALBEA
19:00 *Santa Barbara plazan*
BIASTERIKO TXARANGA.
Amarika plazan
LANTZIEGOKO TXARANGA.
19:00-22:00 *Florida parkean*
Dantzaldia: ANTARA orkestra.
20:30 *Aihotz plazan*
DANTZA PLAZAN
22:00 *Erdialdeko kaleetan*
FAROLEN PROZESIOA
22:45 *Ogeta pilotalekuan*
ESKU PILOTA, (profesionalak)
23:00 *Mendizabalean*
1. SU ARTIFIZIALAK: Portugués SL
Principal antzokian
"La cena de los idiotas":
23:00-3:00 *Erdialdean eta Alde*
Zaharrear
BIASTERI - LANTZIEGOKO txarangak.
23:30 *Olagibel kalean (Agirre*
Lehendakariaren kaletik Bake kalera)
HAMABI ZESENSUZKO
00:00 *Foru plazan*
Kontzertua: ROSARIO
Arka plazan
Gau-jaia: TRIVAL Orkestra.
Aihotz plazan
Kontzertua: TAPIA ETA LETURIA.
Florida Parkean
Manu Aldama DJ, "Al son de la salsa"
Unibertsitateen esparrua
Kontzertua: BERRI TXARRAK
00:30 *Espainia plazan*
AGUA DULCE orkestra.
02:00 *Txosnetan* Kontzertua

5 Astelehena

7:00 *Erdi Aroko hirigunean eta Andre*
Maria Zuriaren plazan
PROZESIOA ETA ARROSARIOA.
9:00 *Espainia plazan*
BANDA ETA TXARANGEN DEIA:
10:00 *Foru plazan*
BOLOAK: Andre Maria Zuriaren saria
10:30 *San Migel parrokian* GOTZAIN-
MEZA
11:00 *Ogeta pilotalekuan*
ESKU PILOTA, binaka. (zaletuak)
Zezen-plazan Bigantxak.
11:30-15:00 *Florida ibilbidean*
Gastronomia eta herri artisautza azoka.
12:00 *Espainia plazatik abiatuta* Kalejira
Vicente Goikoetxea kalean
Haurrentzako dosteta: DETRAKA
Peñafloridako Kondearen plazan Gargantua.
12:00-14:00 *Erdialdean eta Alde Zaharrear*.
Musika-giroa: GESALTZA fanfarrea.
Prado parkean ABENTURA LEKUA
12:30 *Andre Maria Zuriaren plazan*
Kale antzerkia: TRAPU ZAHARRA,
Aihotz plazan Trikitixa
Arka plazan
ERTZAINZAREN MUSIKA BANDA.
13:00 *Florida parkean*
GASTEIZKO UDAL MUSIKA BANDA.
Foru plazan Herri kirolak.
Amarika plazan
HAINBAT KULTURAREN BILTOKIA.
Folk zeltiara: DOCTOR FOLK taldea.
13:30 *Aihotz plazan* Bertsolariak
Peñafloridako Kondearen plazan
Txotxongiloak: COLECTIVO HUMO
Arka plazan
Juan Maria Arzaki omenaldia. Ikurrina-2002.
17:00 *Zezenetara joatea*. Espainia plazatik,
17:00-20:30 *Prado parkean*
ABENTURA LEKUA
18:00 *Zezen-plazan*
ABONUKO LEHEN ZEZENKETA.
Prado parkean BIRLIBIRLOQUE taldea
Probintzia plazan Jotak: ARAGON EN
VIVO.
18:00-20:00 *Peñafloridako Kondearen pl.*
Gargantua.
18:30 *Postetxe plazan*
Musika-giroa: LANTZIEGOKO txaranga.
Erdialdean eta Alde Zaharrear
Musika-giroa: GESALTZAko fanfarrea
19:00 *Senda ibilbidea*
Musika-giroa: BIASTERIKO txaranga.
Amarika plazan
Jazz kontzertua: TEDDY BAXTER.
Aihotz plazan Txistularien kontzertua.
19:00-22:00 *Florida parkean*
Dantzaldia: SONI 2.
20:00 eta 23:00 *Principal antzokian*
"La cena de los idiotas":
20:00 *Jardin de Falerina*
Folk musika: LA WEST BLUEGRASS.
20:30 *Zezenetatik itzultzea*.
Zezen-plazatik Espainia plazara,
Aihotz plazan DANTZA PLAZAN.
22:45 *Ogeta pilotalekuan*
ESKU PILOTA, (profesionalak)
23:00 *Mendizabalean*
2. SU ARTIFIZIALAK: PIROGESTIÓN SL
Principal antzokian
"La cena de los idiotas":
Probintzia plazan
Umorea, eta fantasia: PEPE CARROLL.
23:00-3:00 *Erdialdean eta*
Alde Zaharrear Musika kalean
23:30 *Olagibel kalean*
12 ZESENSUZKO eta musika-giroa
00:00 *Foru plazan*: LOS CAÑOS.
Arka plazan Gau-jaia: BAMBOLA orkestra.
Aihotz plazan Kontzertua: ALBOKA.
Florida parkean Manu Aldama DJ,
Unibertsitateen esparruan
Kontzertua: DOCTOR DESEO.
00:30 *Espainia plazan*
MUSICALIA orkestra.

2:00 *Txosnetan* Kontzertua

6 asteartea

10:00 *Foru plazan*
BOLOAK: Andre Maria Zuriaren saria
11:00 *Ogeta pilotalekuan*
ESKU PILOTA, binaka. (zaletuak)
Zezen-plazan Bigantxak
11:30-15:00 *Florida ibilbidean*
Gastronomia eta herri artisautza azoka.
12:00 *Espainia plazan*
BANDA ETA TXARANGEN DEIA
Abetxuko auzoan
Musika-giroa: LANTZIEGO txaranga.
Vicente Goikoetxea kalean
TRAMPOLIN, "El circo de Polilla y
Alcanfor".
Peñafloridako Kondearen plazan
Gargantua.
12:00-14:00 *Prado parkean*
ABENTURA LEKUA
12:30 *Arka plazan*
ERTZAINZAREN MUSIKA BANDA.
Espainia plazan
Kale antzerkia: PIKOR, "K.O"
San Bizente parrokian
TRONPETA ETA ORGANO BIKOTEA.
Aihotz plazan Trikitixa
Babesgabeteuen auzoan
BIASTERIKO txaranga.
13:00 *Foru plazan* Herri kirolak.
Florida parkean
GASTEIZKO UDAL MUSIKA BANDA.
Amarika plazan Afrikako folk: DJANBUTU.
13:30 *Probintzia plazan*
Aragoi eguna Castelló-ko Aragoiko
Zentroaren Folklore Taldea
Aihotz plazan Bertsolariak
Peñafloridako Kondearen plazan
TITIRITEROS DE BINEFAR
14:00 *Erdialdean*
Kalejira gaitajole bandekin
17:00 *Zezenetara joatea*.
17:00-20:30 *Prado parkean*
ABENTURA LEKUA.
18:00 *Zezen-plazan*
ABONUKO BIGARREN ZEZENKETA.
Peñafloridako Kondearen plazan
HORTZMUGA taldea, "Galaxi" (euskaraz).
Probintzia plazan
Jotak: RAICES NORTEÑAS.
18:00-20:00 *Peñafloridako*
Kondearen plazan Gargantua.
Erdialdean
Kalejira gaitajole bandekin
18:30 *Sefarad plazan (Judimendi)*
LANTZIEGOKO txaranga.
Erdialdean eta Alde Zaharrear
Musika-giroa: GESALTZAko fanfarrea
19:00 *Amarika plazan* Jazza: INFUSION.
Aihotz plazan IZTURI TALDEA
Senda ibilbidea BIASTERIKO txaranga.
19:00-22:00 *Florida parkean*
Dantzaldia: RADAR 976 orkestra.
20:00 eta 23:00 *Principal antzokian*

“CONFESIONES DE MUJERES DE 30”

20:00 *Jardin de Falerina*

Pop-rocka: JOSU BRAVO.

20:30 *Zezenetatik itzultzea.*

Aihotz plazan DANTZA PLAZAN

22:45 *Ogeta pilotalekuan*

ESKU PILOTA, (profesionalak)

23:00 *Mendizabalean*

3. SU ARTIFIZIALAK: A. CABALLER SL

Principal antzokian

“CONFESIONES DE MUJERES DE 30”

Probintzia plazan

Umora gaua: PACO CALONGE Y CIA.

23:00-3:00 *Erdialdean eta Alde Zaharrean*

Musika kalean

23:30 *Olagibel kalean*

HAMABI ZESENSUZKO eta musika-giroa

00:00 *Foru plazan* Kontzertua: FANGORIA

Aihotz plazan EURITAN BLAI.

Florida parkean

Manu Aldama DJ, “Al son de la salsa”.

Unibertsitateen esparruan

Kontzertua: KEN ZAZPI.

00:30 *Espainia plazan* TRAVIATA orkestra.

Arka plazan JOSELU ANAIAK, OKERRAK.

2:00 *Txosnetan* Kontzertua: KURAIA

Andeetako folk musika: AMANKAY taldea.

13:30 *Aihotz plazan* Bertsolariak

P. Kondearen plazan

Txotxongiloak: LA RATA RITA,

17:00 *Zezenetara joatea.*

Espainia plazatik, Eduardo Datora

17:00-20:30 *Prado parkean*

ABENTURA LEKUA

17:30 *Espainia plazatik, Eduardo Dato eta*

Florida kaleetan barrena, Prado parkera

Blusa txikiak jaira joatea, Blusa Mutil eta

Nesken Elkarreak lagunduta,

18:00 *Prado parkean*

TXIKIENTZAKO FESTA HANDIA

Zezen-plazan

ABONUKO HIRUGARREN ZEZENKETA.

Probintzia plazan

Jotak: VOCES NAVARRAS.

18:30 *Arana Auzoan*

ARABA ERRIOKA txaranga.

19:00 *Amarika plazan*

Jazza: SOUL BUSSINES.

Aihotz plazan

ELTZIEGOKO GAITAJOLEAK &

FRIENDS.

19:00-22:00 *Florida parkean*

Dantzaldia: HURACAN orkestra.

20:00 eta 23:00 *Principal antzokian*

“CONFESIONES DE MUJERES DE 30”

20:00 *Jardin de Falerina*

Jazza: IÑAKI ASKUNZE QUARTER.

Prado parketik Espainia plazara

Blusa txikien itzulera.

20:30 *Zezenetatik itzultzea.*

Zezen-plazatik Espainia plazara

Aihotz plazan DANTZA PLAZAN.

22:45 *Ogeta pilotalekuan*

ESKU PILOTA, (profesionalak)

23:00 *Mendizabalean* SU ARTIFIZIALAK:

ZAMORANO CABALLER SA.

Principal antzokian

“CONFESIONES DE MUJERES DE 30”

Probintzia plazan

Umorea eta beste: JAVIER SEGARRA

23:00-3:00 *Erdialdean eta Alde Zaharrean*

Musika kalean

23:30 *Olagibel kalean*

HAMABI ZESENSUZKO eta musika-giroa.

00:00 *Arka plazan* Gau-jaia: SOPRANO

Aihotz plazan

Kontzertua: JABIER MUGURUZA.

Florida parkean

Manu Aldama DJ, “Al son de la salsa”

Unibertsitateen esparrua

Kontzertua: ORTOPHONK eta DJ-ak

00:30 *Espainia plazan*

BELISSIMA orkestra.

7 asteazkena

10:00 *Foru plazan*

BOLOAK: Andre Maria Zuriaren saria

11:00 *Ogeta pilotalekuan*

ESKU PILOTA, binaka. (zaletuak)

Zezen-plazan Bigantxak

San Migel parrokian

Blusa txikien ospakizuna

Andre Maria Zuriaren plazan

“Zure VIII. Argazkia Bereziak”

11:30 *Andre Maria Zuriaren*

irudiaren aurrean

OHOREZKO AURRESKUA, Zeledon Txiki

eta Neska Txiki eskainia.

11:30-15:00 *Florida ibilbidean*

Gastronomia eta herri artisautza azoka.

12:00 *Espainia plazan*

ZELEDON TXIKIREN JAITSIERA

12:00-14:00 *Arana auzoan*

ARABAR ERRIOKA txaranga.

Prado parkean ABENTURA LEKUA

12:30 *Peñafloridako Kondearen plazan*

Gargantua.

Andre Maria Zuriaren plazan

GUSARAPO taldea, “Historias de cine”.

Vicente Goikoetxea kalean

AZKONA, Kiko, Koko, Moko eta Flax.

San Bizente parrokian

Musika klasikoa: Madrileko

CAMERATA CORTE.

Arka plazan

ELTZIEGOKO eta BASTIDAKO BANDAK.

Bastiturri kalean XII. GANBA JATEA

Aihotz plazan Trikitixa

13:00 *Florida parkean*

GASTEIZKO MUSIKA BANDA.

Foru plazan Herri kirolak.

Amarika plazan

8 osteguna

9:00 *San Migel parrokian*

Blusa beteranoak: meza, loreak eskaintzea.

10:00 *Espainia plazan*

BANDA ETA TXARANGEN DEIA:

Foru plazan BOLOAK

Espainia plazan

SUKALDARITZA LEHIAKETA

11:00 *Ogeta pilotalekuan*

ESKU PILOTA, binaka. (zaletuak)

Zezen-plazan Bigantxak

11:30-15:00 *Florida ibilbidean*

Gastronomia eta herri artisautza azoka.

12:00 ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI

ETA TXOTEN konpartsa

V. Goikoetxea kalean Haurrentzako dosteta:

Peñafloridako Kondearen plazan

Gargantua.

12:00-14:00 *San Martin auzoan*

GESALTZA fanfarrea.

Prado parkean ABENTURA LEKUA

Postetxe plazan Eskalalekua “Piztiak”

12:30 *Andre Maria Zuriaren plazan*

antzokia: MAMARRO TEATRO,

San Bizente parrokian

PIANO KONTZERTUA, Xabier Lizaso.

Aihotz plazan Trikitixa:

Arka plazan AGURAIINGO MUSIKA B..

Probintzia plazan Beteranoentzako VI.

Dantza Lehiaketa.

13:00 *Florida parkean* MUSIKA BANDA.

Foru plazan Herri kirolak.

Amarika plazan ATABAL taldea.

13:30 *Aihotz plazan* Bertsolariak

Peñafloridako Kondearen plazan

Txotxongiloak: BEHI BI'S

17:00 *Zezenetara joatea.*

Espainia plazatik, zezen-plazara.

17:00-20:30 *Prado parkean*

ABENTURA LEKUA

18:00 *Prado parkean*

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK.

Probintzia plazan

Jotak: VOCES DE NAVARRA.

Zezen-plazan

ABONUKO LAUGARREN ZEZENKETA

18:00-20:00 *P. Kondearen plazan*

Gargantua.

18:30-20:30 *Postetxe plazan*

Eskalalekua “Piztiak”

19:00 *Amarika plazan*

Jazza: MARIAJE ABAIGAR & JUST

FRIENDS TRIO.

Aihotz plazan

VIII. Trikitilari Txapelketa eta Haur

Trikitilarien VI. Txapelketa.

19:00-22:00 *Florida parkean*

Dantzaldia: EKLIPSE orkestra

20:00 eta 23:00 *Principal antzokian*

“ATRACO A LAS TRES”

20:00 *Jardin de Falerina*

Popa-rocka: CARTIS

20:30 *Zezenetatik itzultzea.*

Aihotz plazan DANTZA PLAZAN.

22:45 *Ogeta pilotalekuan*

ESKU PILOTA: (profesionalak)

23:00 *Mendizabalean*

SU ARTIFIZIALAK: ZARAGOZANA

Principal antzokian

“ATRACO A LAS TRES”

Probintzia plazan

Umorea eta beste “Esta fonda es la monda”.

23:00-3:00 *Erdialdean eta Alde Zaharrean*

Musika kalean:

23:30 *Olagibel k.12* ZESENSUZO
00:00 *Foru plazan*: JUAN PARDO.
Arka plazan Gau-jaia: OASIS orkestra
Aihotz plazan GORKA SARRIEGI.
Florida parkean Manu Aldama DJ,
Unibertsitateen esparruan: MAREA
00:30 *Espainia plazan*
CARRUSEL orkestra.
2:00 *Txosnetan* Kontzertua


9 ostirala

10:00 *Foru plazan* BOLOAK
11:00 *Ogeta pilotalekuan*
ESKU PILOTA, binaka (zaletuak)
Zezen-plazan Bigantxak
12:00 *Espainia plazan*
BANDA ETA TXARANGEN DEIA:
Peñafloridako Kondearen plazan
Gargantua.
12:00-14:00 *Txagorritxu auzoan*
GESALTZA fanfarrea.
Zaramaga eta El Pilar auzoetan
ARABAR ERRIOKA fanfarrea.
Prado parkean ABENTURA LEKUA
12:30
Andre Maria Zuriaren plazan
Kale antzerkia: MAIMUR TEATRO,
"Paris-Babia".
San Bizente parrokan
Musika klasikoa: TANGO A DOS

Aihotz plazan Trikitixa.
Arka plazan Kontzertua: ARAIAKO
MUSIKA BANDA.
13:00 *Foru plazan* Herri kirolak.
Florida parkean
Kontzertua: GASTEIZKO MUSIKA
BANDA.
Amarika plazan
HAINBAT KULTURAREN BILTOKIA.
Kubako musika: SON DE CUBA taldea.
13:30 *Aihotz plazan*
Bertsolariak: Unai Iturriaga, Amets
Arzallus, Ruben Santxez, Joxe Agirre. Gai
jartzailea: Egoitz Zelaia.
Peñafloridako Kondearen plazan
Txotxongiloak: TAUPADA, "Mari Sorgin"
(euskaraz).
17:00 *Zezenetara joatea*.
Espainia plazatik, Eduardo Dato eta Florida
kaleetan barrena, zezen-plazara
17:00-20:30 *Prado parkean*
ABENTURA LEKUA
18:00 *Prado parkean*
Haurrentzako antzerkia: MUTIS, "Crispin
en el reino de Pasimisi"(gaztelaniaz).
Zezen-plazan
ABONUKO 5. ZEZENKETA.
Probintzia plazan
Jotak: VOCES DEL EBRO.
18:00-20:00
Peñafloridako Kondearen plazan
Gargantua.

19:00 *Foru plazan*
Sagardotan egindako LUKAINKA
DASTATZEA. Antolatzailea: Boilur.
Postetxe plazan
ARABAR ERRIOKA txaranga.
Amarika plazan
Jazza: DAVID ORDUÑA QUARTET.
19:00-22:00 *Florida parkean*
Dantzaldia: SAKATRIK.
19:30 *Aihotz plazan*
Dantza plazan: GASTEIZKO UDAL FOL-
KLORE AKADEMIA.
20:00 *Principal antzokian*
"ATRACO A LAS TRES"
Jardin de Falerina
Jazza: JOSEBA LOINAZ QUARTET.
20:30 *Zezenetatik itzultzea*.
Aihotz plazan DANTZA PLAZAN.
22:45 *Ogeta pilotalekuan*
ESKU PILOTA (profesionalak)
23:00 *Mendizabalean*
6. SU ARTIFIZIALAK: PABLO SL
Probintzia plazan
Ikuskizun komiko musikala: "23:00-3:00
Espainia plazan GEISER orkestra.
23:30 *Olagibel kalean* 12 ZESENSUZO
00:00 *Txosnetan* Kontzertua
1:00 *Andre Maria Zuriaren plazan*
JAI BUKAERA: ZELEDON AGURTU
ETA IGOTZEA. AZKEN TRAKA, ESTE-
VE, SL pirotekniaren eskutik.

TXOSNAK 2002



ABUZTUAK, 3 (larunbata)

00:00 Kaotiko
02:00 La Polla

ABUZTUAK, 6 (asteartea)

00:00 Ken'7
02:00 Kuraia

ABUZTUAK, 9 (ostirala)

01:00 Des+karadas
03:00 Obrint pas

ABUZTUAK, 4 (igandea)

00:00 Berri txarrak
02:00 Los Padrinos

ABUZTUAK, 7 (asteazkena)

00:00 Ortophonk
02:00 Chocadelia
International DJ's

ABUZTUAK, 5 (astelehena)

Amnistiaren aldeko eguna

00:00 Dr. Deseo
02:00 O'Jarbanzo Negro

ABUZTUAK, 8 (osteguna)


00:00 Marea
02:00 Reverendo Parker

AISIALDIAZ MINTZO...



Bigarren atal honetan AISIALDIRAKO proposamenak dakartzkizuegu: alde batetik, bertako liburudenda batzuek datozen hileetarako gomendatzen dizkizueten zenbait liburu, zeren eta bizikleten ondoan liburuak ere udarako baitira. Irakurriz bidaia dezazuela dugu xede.

Jarraian eta bidaiatzeko proposamenekin segitzeko,



bolada honetako bosgarren eta azken bidaia aurkeztzen dizuegu.

Eta azkenik, Gasteizek eskaintzen dituen aisialdi-jardueren lagin bat, egokia oso izan daitekeena irailetik aurrera abian jartzeko.

Espero dugu, beraz, proposamen hauek zuen gustukoak izatea, eta bertako informazioa datozen hileetarako aprobetxagarria izango delakoan...

uda on pasa eta mihia eta gorputza astindu ditzagun!

e.b.z.

Atal honetako testuak: Edurne Begiristain

Argazkiak: Edorta Sanz

Hona hemen aisialdirako lehen proposamena

EUSKALDUN IRAKURLEEN KLUBA

Liburu bat irakurritakoan horretaz eta hartaz mintzatzeko elkartuko gara

*Eguna eta ordua: printzipioz, ostegunetan, iluntzean

NOIZ HASIKO: urritik aurrera

Irailetik aurrera zehaztaperen gehiago izango duzue

Informaziorako telef.: 945222153 (Geu)

ALBENIZ LIBURUDENDA



LEUROPA

Egilea: Pablo Sastre

Argitaletxea: Susa

Orrialde kopurua: 185

Prezioa: 12,50 euro.

Pablo Sastren (Madril, 1958) seigarren nobelak kamioiz egindako bidaldi bat kontatzen du, lurralde arrotzetan barrena, ingirarik gabeko tratularien artean. Joseba Jaka III. Literatur Bekako saria jaso du liburu honek.

Halaxe dio liburuaren kontrazalak: "Sakik esan zion dena en regla zegoe-la, eta galdetu zion aber zenbat jende zegoen biajia egiteko. Eta Mohamedek: Badira bost arima oraintxe. Halaxe esan zuen, "alma" hitza ibili zuen.

Bost? Harritu zen Saki. Hamar ziren eta! Eta besteak?

Batzuk "desaparezitu" zirela, esan zuen Mohamedek, berak etzekiela nora. Baita, gure biajia oso garestia zela. Baita, batzuk barkuan joan ote ziren... Etzuen, ez, oso garbi hitz egiten.

Baina, bostekin eztugu ezer egiten, esan zion Sakik. Pixka bat pentsatzen egon zen eta, bestiak ez baitzuen ezer esaten: Bostekin eztago negoziarik, erabaki zuen.

Mohamedek orduan: noski bazela jende gehiago, esan zuen, baina prezioa jeitsi egin beharko genuela.

Eta Sasik: jeitsi? Zenbatera?

Arima bakoitzak, zureztat berrehun, esan zuen Mohamedek".

ERRAUTSEN DISTIRA

Egilea: Xabier Mendiguren Elizegi

Argitaletxea: Elkar

Orrialde kopurua: 149

Prezioa: 10, 50 euro.

Gure herriko historia petralarekin korapilatzen diren lau istorio idatzi ditu Xabier Mendigurenek, ipuin luzearen eta nobela laburraren artean dauden lau kontakizun indartsu, ongi josi eta mamitsu. Neska kazetari batek ligatzeko asmotan joko du ondoko herrira, baina gerrako pasadizo bat kontatuko dion alarguna topatuko du bertan. Komentu ilun batean, fraide espainolisten eta abertzaleen artean aspaldi gertaturiko misterio eta heriotzak argitu nahian hasiko da ahaide urrun bat. Lagun baten aitona gudarekiko mirespenak eta neska baten maitasunak Nikaraguako iraultzara eraman zuten gazte bat, baina handik itzultzean ohartuko da nola aldatzen diren gauzak, kamarada.

36ko gerratik ETaren su-etena bitartean, Francoren kontrako erresistentziatik eta transizio nahasitik pasata, bere bizitzako nahi eta ezinak gogoratuko ditu Banco de Vasconiako enplegatu txepelak, Iruñetik jaioterrirako bidaiak...

Errautsen distira da antzinako borroketatik geratzen den ia bakarra, baina haren argi ahulak berotu ditzake oraindik ere gure bihotzak, literatura bihurtuta.



STUDY

BOST IDAZLE HASIER ETXEBERRIAREKIN BERBETAN

Egileak: Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria eta Joseba Sarrionandia

Argitaletxea: Alberdaina

Orrialde kopurua: 350

Prezioa: 18 euro



Liburu honek isiltasuna izan nahiko luke. Zarataren erdian, aurrera segitu baino lehenagoko geldialdia, ez besterik. Bost idazlerekin eginiko elkarrizketak biltzen dira hemen, orkestra zabalago bateko bakarlaririk, guztiak ere. Badakigu eurak bostak gabe, XX. mende bukaerako euskal literaturak ez zukeela musika bera izango, XXI. mende hasierakoak ere ez. Euren bost liburuak gabe ez

ginatekeela honaino etorriak izanen.

Liburu honetan bost idazle ezberdinen iritziak aurkituko dituzu alfabetoak agintzen duen legean antolatuak: Atxaga, Izagirre, Lertxundi, Saizarbitoria eta Sarrionandia. Horrelaxe. Bost idazle. Bost literaturgile eta irakurle bat aurrez aurre. Hitz eginez isiltasun apur bat ekarri nahian gurera. Ez besterik. Horixe baizik ez, aurrera jarraitu baino lehen, nork bere bidean.

LA REINA DEL SUR

(Hegoaldeko erregina)

Egilea: Arturo Perez Reverte

Argitaletxea: Alfaguara

Orrialde kopurua: 552

Prezioa: 20.75 euro.

Liburu honetan Arturo Perez Revertek (Kartagena, 1951) idazteko duen abilezia agerian uzten du eta erakusten digu errealitatearen miaketaren bitartez errealitate bera fikzioan bilakatu dezakeela. Bera bezalako idazle batek baino ezin du errealitate hori gainditzeko duen pertsonajerik sortu. O-raingoan, gainera, istorioaren heroia emakume bat da: Teresa Mendoza. Bakarrik dagoen emakume honek ezerretik inperio bat eraikitzen du, gizon gogorrez betetako mundu batean egiten du inperio hori, narkotrafikoaren munduan hain justu. Edozer gauza egiteko prest dagoen emakumea da eta aldi berean ezer ez egiteko prest dagoena, bere bizitzaren letra ez baitu berak idatzi. La Reina del Sur arrakasta itzela duen eleberria da, harritzen duena, aztoratzen duena.



JOSETXO taberna



“ez dago
pintxorik”

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52


Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

AYALA Liburudenda



IRAULTZEN MARATOIA

Egilea: Joxe Iriarte Bikila

Argitaletxea: Txalaparta

Orrialde kopurua: 208

Salneurria: 14,00 euro

Literatura eta historia uztartzen dituen maratoia da hau. Berrogeita bi kilometrotan zehar, hainbar matxinada eta borroka gogorazten dizkigu egileak. Azken batean, mendeetan barrena ustiatuak eta menderatuak izan direnek zapaltzaileen aurka bideratutako erreboltak dira guztiak.

Erroma, Atenas, Amaiur, Irlanda, Chiapas, Siberia, sahara, Paris edota Orreagan kokaturiko gladiadoreak, indiarrak, langileak eta iheslariak dira protagonista. Edonon eta edonoiz edozein bidegabekeriai aurre egitera ausartu diren herritar anonimoak eta ezagunak dira guztiak. Bidean, halaber, beste hamaika herri eta iraultzaile ere aurkituko dituzu.

PICAS VASCAS EN FLANDES. HISTORIA DE ARMAS DE EUSKAL HERRIA

*(Euskal astamakilak Flandesen.
Euskal Herriko armen historia)*

Egilea: Jose Antonio Azpiazu

Argitaletxea: Ttartalo

Orrialde kopurua: 219

Salneurria: 15,00 euro



Aro Modernoan Euskal Herriko armagintzak sekulako garrantzia izan zuen mundu mailako egoeran. Izan ere, garaiko ejerzitorik indartsuari arma arinez hornitu baitzion gure herriak, bai arma zuriak bai su-armak. Carlos V. eta Felipe II. Errege Katolikoentzat Gipuzkoa eta Bizkaia arma fabrikatzaile indartsuak ziren, eta horregatik ezinbestekoa izan zen haientzat bi herrialde hauek alboan izatea. Azken finean, gizartearentzat oro har, armagintzaren alorrak pisu handia izango du garai hartan. Armagintzak eskaera itzela sortuko du mundu osoan eta euskal gizartearen etorkizunarentzat erabakigarria izango da sektore hori, Euskal Herria industria eta merkataritzari estuki lotuta zegoen heinean. Liburu honetan armagintza oinarri hartuta, Euskal Herriko historiaren errepasoa egiten da.

ARRIAGA Megadenda

LUR BAT HARATAGO

Egilea: Joan Mari Irigoien **Argitaletxea:** Elkarlanean

Orrialde kopurua: 652 **Salneurria:** 24,64 euro.

Lur bat haratago
Joan Mari Irigoien



Marka guztiak haustera dator Joan Mari Irigoien nobela berri honekin: Lur bat haratago euskaraz inoiz idatzi duen eleberririk mardulena da, eta askoz gauza gehiago ere bai. Historia handi, eder, mamitsu, liluragarri bat kontatzen digu beste hamaika istorio txiki, bitxi, jakin-garriren bitartez, irakurlea bere giroan blaituz eta bere sarean harrapatuz, denbora luzerako.

Izan ere, XVII. mendeko Nafarroara garamatza egileak: familia handiak dira Etxegoienarrak, urte luzez erbestean egonak gaztelako inbasioari aurre egiteagatik, baina agintari berriekin osteratzen adiskidetuak, eta etxeko seme bigarrena dugu Joanes, eleberririk protagonista eta kontalaria. Bi munduren artean sentitzen da etengabe Joanes Etxegoien: arbasoen heroitasuna eta gurasoen pragmatismoa, zientziaren argia eta erlijioaren abaroa, tradizioaren babesa eta modernitatearen deia, lurra eta itsasoa, Europa eta Amerika, katolikoak eta luthertarrak... Halakoxea baitzen sasoi hura ere, kontraesanez eta zalantzez bete.

Arabako Euskal Hotsak

Egileak: Estibalitz Breñas Glz. de Zarate eta Jabi Otsoa de Alda Gurrutxaga

Argitaletxea: Geu aldizkaria eta Geu elkarteak

Orrialde kopurua: 256

Salneurria: 19,8.- euro

Arabako euskal jatorriko toponimiak antzinako biztanleen iragan euskalduna erakusten digu. Baina, errealitate hau baieztatzen duten bestelako lekukotzak al daude? Gure arbasoek menderik mende gehien erabili ohi zuten hizkuntzaren aztarnarik utzi al dute? Erreferentzia zein idazkirik utzi al digute? Zer eman du Arabak euskararen historian? Zer euskara mota mintzo zen?...

...Zalantza hauek guztiak liburu honetan argitu ahal izango dituzue. Edukietan aberats eta bisuala oso, dokumentu original ugari, argazkiak eta mapak dituela. Gure, zure, historiaren atal garrantzitsu hau ezagut dezazun, eta aldi berean, emandako datuen bitartez - Aktak, kontu-liburuak, noblezia espedienteak, testamenduak, ezkontzak, inkisizioaren epaiketak, arabarren euskarazko idatziak, ...- egiaztatu Araban euskara erabilpen orokorreko hizkuntza izan dela, mende askotan zehar gehienena izaki, eta hainbat garai eta zonaldetan ezagutzen eta hitz egiten zen bakarra.

AS VASCOS



25

urte

Euskal Kulturgintzan

Arriaga Megadenda,

liburudenda bat baino askoz gehiago.

LIBURUDENDA ETA PAPERDENDA


San Prudencio, 7 · Tel. 945 144 501

INFORMATIKA ETA OFIMATIKA

San Antón enparantza, 7 · Tel. 945 269 033

Arriaga
Megadenda

ZULOA IRUDIA



LOS ARCHIVOS DE THE SPIRIT

(The Spirit-en artxiboak)

Egilea: Will Eisner
Orrialde kopurua: 237

Argitaletxea: Norma Editorial
Prezioa: 35 euro

Duela 60 urte baino gehiago The Spirit lehenengo aldiz kaleratu zenean, arrakasta izugarria lortu zuen, eta pertsonajea eta egilea bera, Will Eisner, legenda bilakatu ziren. Ziurrenik ez da egon historia osoan horrenbeste mirespen eta laudorio jaso duen komikigilerik, ez eta kritiko, irakurle eta komiki zaleei horrenbeste gustatu zaien komikirik ere.

Liburu honek The Spirit komikien bilduma egiten du, koloretan. Istorio berriztatuekin eta formatu bateratua-rekin. Luxuzko edizioa da hau, azal gogorrekoa. Gainera, liburu honetako istorioak kronologikoki ordenatuta daude, detektibe ospetsuaren aurreneko agerralditik hasita. Kapitulua bakoitzak zazpi-zortzi orrialde ditu, 31 kapitulu orora. Eisnerrek komiki bizia aurkezten digu.

PHE02 FEMENINOS

Egileak: Mundu osoko 39 argazkilari
Orrialde kopurua: 180 inguru

Prezioa: 30 euro
Argitaletxea: Madrilgo Udala

1 1997an Madrilan Argazki Jaialdi-lehiaketa bat egiteko ideia sortu zen. La Fabrica izeneko ekimenaren bidez abian jarri zen jaialdia eta PHotoEspaña izenaz bataiatu zen. Mundu osoko argazkilariek euren lanik hoberenak erakutsi zituzten erakusketa honetan, eta azken edizioaren barruan emakumeei zuzendutako argazki bilduma liburu honetan jaso dira.

Emakumearen ikonografia gizarte aldaketaren adierazle argiena dela diote soziologo askok. Historian zehar, emakumearen irudia idealizatu egin da neurri handi batean, eta errealtatetik urrundu da. Argazkilaritzaren hasieratik emakume gazteak, ederrak, liluragarriak eta erakargarriak nagusi izan dira. Emakume horiek benetan direnak eta pentsatzen dutenak ez du garrantzirik izan, bakar-bakarrik haien idealizazioak balio izan du. Argazki bilduma honetan emakume horien barruko hori bere gordintasun osoz islatu dute argazkilariek.



ZULOA

IRUDIA

KOMIKIAK
•
IRUDI LIBURUAK

Korreria (Hedegile) kalea, 21 · Tfnoa. 945 26 15 47 · GASTEIZ



LIBURU ETXEA CASA DEL LIBRO

ERABATEKO SUKALDEA


(edo sukalde kontuetan sekula ez galtzeko jakin behar diren gauzak eta erak zerrendan idatziak)

Egilea: Luis Irizar, Julian Bereziartua eta Hasier Etxeberria.

Argitaletxea: Tarttalo

Orrialde kopurua: 214

Prezioa: 15,60 euro.



Liburu honetan janariez eta janarien ingurukoez hitz egiten da. Arrautza batek baitauka bere historia. Ez dituzu, hala ere, jaki eta hitz guztiak aurkituko (esaterako F, N, Q, R, V, X eta Y letrak falta dira), lan zabalago baterako pausoa baizik ez baita honako hau, baina

zeure mahaikideekin aipatzeko moduko kontuak topatuko dituzu hemen eta han, orrialdeetan barrena barreiatu. Historia, natura eta dietetika aipamenak dira gehienak. Aholkuren bat edo beste, bitxikeriak. Irakurgai motzak, era alfabetikoan antolatutak.

Hitz gehienak hiru zatitan banatuta aurkituko dituzu hemen. Lehendabizi aurkituko duzuna Hasier Etxeberriak idatzitakoa da, berari egokitu baitzaio alderdi "entziklopedikoa" lantzea. Jakiei buruzko bitxikeriak, historia eta aholkuak. Ondoren, hitz gehientsuenetan, Julian Bereziartua sendagilearen jakituria aurkituko duzu, jateko grinak osasunean kalterik egin ez diezazun sekula, eta azkenik, Luis Irizar sukaldari maisuaren proposamen zehatz eta bikainak irakurri ahal izango dituzu.

LAS AVES DEL PARQUE NATURAL DE GORBEIA

(Gorbeia Natur Parkeko hegaztiak)


Egilea: Aitor Galarza

Marrazkiak: Angel Dominguez

Argitaletxea: Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Orrialde kopurua: 144

Prezioa: 15 euro



Liburu honen xedea da Gorbeia bisitatzen dutenei eta Ingurumen arloko adituei Natur Parkearen inguruko oinarritzko informazioa ematea. 144 orrialdetan zehar, parkean bizi diren hegaztien zerrenda eta deskribapena egiten da. Era berean, hegaztiak bizi diren lekuak zehaztu eta urtaro desberdinetan egiten dituzten mugimenduak azaltzen dira. Izan ere, Gorbeia Natur Parkearen ezaugarriarik adierazgarriena parajeen barietatea da. Paraje desberdinen ondorioz animalia eta landare ugari aurkitu daitezke bertan. Horien artean, hegaztiak bereziki nabarmentzen dira. Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien eskutik argitaratu den liburu honen helburu nagusia honakoa da: hegaztien inguruko zehaztasun guztiak jakinaraztea, eurekiko errespetua eta mirespena handitzeko asmoz.

IRUSTA

**poteo eta
pintxoak**

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Afrikan barrena murgilduko zaituztegu ale honetan.

Basamortua eta itsasoa batera goatzeko parada izango duzue oraingoan, Juan Zabala arabarraren eskutik. Maroko, Mauritania, Senegal eta Mali ezagutuko ditugu. Kotxea hartu, eta Afrikako mendebaldeko kostaldea zeharkatzera gonbidatzen zaituztegu.

Animatzen al zarete?

MAROKOtik

MALIrara:

**Harea eta
urezko bidaiu**

Udako ale berezi hone-
tan proposatuko dizue-
gun txangoa kotxez
egin zuen Juanek, beste
bidaiari batzuekin batera,
baina txirringaz, motorrez eta
oinez ere egin daiteke (horre-
tarako ausartak izan beharko
dizue). Bidaia Marokon hasi-
ko da eta Afrikako mendebal-
deko kostaldea jarraituz,
Mauritania eta Senegal zehar-
katuko ditugu, Malin bukatze-
ko. Bidaia hasi baino lehen
ezinbesteko geldialdia egin
behar da Rabaten, Marokoko
hiriburuan. Izan ere, bertan
Mauritanian sartzeko bisatua
atera behar da eta han estatu
espainarrean egitea baino
askoz merkeagoa da. Maroko
azkar igaro zuela diosku
Juanek, lehendik ezagutzen
zuen herrialdea delako. Beraz,
hurrengo hiria Dakla izango
da, bidaia benetan hasiko den
lekua, hain justu. Daklatik ai-
tzin ejerzitoak babestutako
konboi batean bidaiatu behar
da Mauritaniako muga igaro
ahal izateko. Frente
Polisarioarekin izandako gerra-

ren ondorioz minaz betetako
zonalde arriskutsua denez,
bertan gelditzera behartzen
zaituzte. Asteartero eta ostira-
lero konboia ateratzen da ber-
tatik, eta egun bat lehenago
egon beharra dago baimen
guztiak prest izateko.

Militarizatutako zonaldea
izanagatik, leku "zoragarria"
eta "erakargarria" iruditu zi-
tzaion gure bidaiariari. Baina
ez hori bakarrik, bidaia honek
bestelako erakargarritasunik
baitauka. Hain justu ere,
Afrikara doazen pertsona des-
berdin interesgarri anitz eza-
gutzeko parada ematen baitu
konboiak. Daklatik 'Inoren
Lurra-ra' (Tierra de Nadie)
kotxe ilara luze batean egingo
da. Normalean gauez heltzen
da, ejerziito marokorak hala
agintzen duelako, segurtasun
neurriak direla eta. Juanek
"oso aberasgarri" irizten dio
bidaia zati honi, jende desber-
din ugari ezagutu baitzuen.
Puntu honetaraino errepide
asfaltatuaren gainean egiten da
bidaia, baina hortik aurrera
Saharako basamortuan bete-

betean sartzen zara. "Hemen
zailtasunak hasten dira, baina
aldi berean elkartasuna", dio.
Izan ere, kotxeekin arazoak
izanez gero, edonork lagun-
tzen dizu, eta hori eskertzekoa
da 40 gradu eta sargori galanta
jasaten denean.

Mauritania: ipuinetako herrialdea

Inoren Lurra-tik Maurita-
niarako bidea hartzen da. Tarte
polita eta ikusgarria da hauxe,
kostaldetik baitoa bidea.
"Mauritania herri erabat ezeza-
guna da, baina izugarria da,
liluragarria, basamortuaren
erdi-erdian dagoen ipuinetako
herrialdea", azaltzen du
Juanek. Mauritaniaren baitan
Nadibu herrira abiatu zen gure
bidaiaria. Inguru "ikusgarria",
arrantzaleen herria..., leku
egokia arraina merke jateko.

Mauritanian barna trenez
joateko aukera paregabea
dagoela azaltzen digu Juanek.
Munduko trenik luzeena da
hauxe eta herrialdearen biho-



tzera, basamortuaren erdi-erdira, eramaten zaitu. Nuakhot Mauritaniako hiriburua da, zonalde turistikoa da oso. "Harrigarria da toki hau, dunak apurka-apurka herria irensten baitoaz", dio. Barrualdeko zonalde honetan bi herri azpimarratzen dizkigu Juanek: Chingeti eta Buadan. Herri ikusgarriak dira biak; Buadan, esaterako, harkaitz baten gainean eraikitako herria da.

Hortik laupabost egunetan zehar bidaiatzen da, basamortutik barrena, Senegalera heltzeko. Itsasoaren ertzetik egiten da

bidaia, eta bitxia da, une batean hondartzatik egin behar baitira 170 km. Juanek azaltzen duenez, itsasbehera dagoenean baino ezin da bidaia zati hau egin. Oso esperimentzia dibertigarria izan zela gogoratzen du.

Senegal eta Mali: nahasketen herriak

Senegalek Afrika beltzaren ezaugarriak biltzen ditu. Jendearen azalean segituan ikusten da Mauritaniarekin aldaketa handia dagoela. Senegaldarrak fisikoki

"oso ederrak" direla iritzi dio gure lagunak, "oso abegikorrak" gainera. Senegalen San Luis hiria dago,

jazzaren hiriburua. Mendebaldeko bizimoduarekin antza handiena duen hiria da hau. Senegaletik behera joan eta Mali izango da bidaia bukatzen den tokia. Bertara, kotxez, trenez edo untziz irits zaitezke.

Mali nahasketa handiko herria da. Senegal ibaia erdi-erditik igarotzen da, eta bizitasun itzela ematen dio. Ibaitek piragua txikietan ere bidaiatu daiteke. Kultura desberdinen nahasketa dago zonalde horretan eta oso aberasgarria dela dio Juanek. Bertako jendearen harrera ona gogoratzen du, edozein arazo izanda ere, beti laguntzeko prest dagoena. Toki asko daude ikusteko bertan: Gao, Segu, Mopti...; bakoitzaren gogo eta denboraren arabera leku ugari ezagut daitezke. Animatzen al zarete?



DATU INTERESGARRIAK

TXERTOAK: Sukar horiarena derrigorrezkoa da. Tifus-arena eta Malariaren kontrakoa Senegaletik hegoaldera ez bazoazte, ez da derrigorrezkoa. Bestela bai.

URTARORIK EGOKIENA: Bidaia hau egiteko arorik hoberena urritik apirila bitartean da. Bero gutxiago egiten du eta 'jarmatan' (bertako haizea) gutxiago dago.

DOKUMENTAZIOA: Mauritaniar sartzeko bisatua behar da.

HIZKUNTZA: Frantsesa jakitearekin ongi moldatuko zarete.

KULTURA: Hiru motatako kultura elkarrekin bizi dira Mauritaniar: basamortuko ibiltariak, tuaregak eta mauritaniarrak (merkataria gehienak). Arrantzeak "Arabiako mauritaniarrak" dira, oro har etorkinak: senegaltarrak, angolattarrak...




**LIZARRALDE
SOINYÄ**

TXALAPARTA, S.L.

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPAZIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA

945 226 977

CASTEIZ



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 – Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundación

JAVIER LOPEZ DE ROBLES,

32 urte. Euskara ikaslea



“Ahalegina baino gehiago, borondatea jarri behar da euskara ikasteko”

- Zer dela eta erabaki zenuen euskara ikastea?

Zuzenbide ikasketak egiten ari nintzela ohartu nintzen A ereduak ez zuela ezertarako balio eta nik euskalduna izan nahi nuela. Behin karrera bukatuta, euskara ikasi behar nuela erabaki nuen.

- Zenbat denbora daramazu bai & by-n euskara ikasten?

Duela hiru urte sartu nintzen.

- Eta zergatik erabaki zenuen

Euskara ikastea dugu jardueren artean ahaztu ezin daitekeena. Oraingoan bai & by euskaltegiko ikasle batekin mintzatu gara, baina horra hor Gasteizek dituen euskara ikasteko gainontzeko aukerak: aek (3 euskaltegi), Ika (3 euskaltegi), Udaberria euskaltegia eta, azkenik, Hegoalde euskaltegia.

bertan ikastea?

Gehienbat ordutegi oso malgua eta irekia duelako, eta lanean egonda ikasteko denbora gutxiago izaten da. Beraz, hemen aukera daukat nahi dudanean etortzeko.

- Asteazkenetan egun eta zenbat ordu eskaintzen diozu euskara ikasterari?

Hasieran goizez edo gaez joaten nintzen; orain soilik gaez noa, kanpoan lan egiten baitut eta beste aukerarik ez dudalako. Arratsaldeko 8.30etatik 10ak arte egoten naiz, asteazken egun.

- Azalduko al diguzu nolakoa den bertako metodoa?

Euskara irakasten duten beste zentro edo euskaltegiekin alderatuta, zertan desberdintzen da? Bi metodo desberdin darabilte. Batetik, ordenagailuko ariketak daude eta, bestetik, mintzapraktikako klaseak. Ordenagailuak aukera ematen dizu nahi duzun erritmora lan egiteko eta mintza-klaseetan talde txikietan praktikatzeko dugu, jokuak, azalpenak

eta abar eginez.

- Zure irudiko, ahalegin handia egin behar al da euskara ikasteko?

Ahalegina baino gehiago borondatea jarri behar da. Hemen ez dago ordutegi zehatzik, beraz, norberaren ardura da, norberaren esku dago ikastea edo ez. Nik uste, pertsonaren arabera izango dela. Nire kasuan, adibidez, hasieran nahiko gogor aritu nintzen, orain lasaia hartu dut, zailagoa delako.

- Borondateaz gain, ahalegina ere egin beharko da euskara egunez egun erabiltzeko, ezta?

Bai, noski. Nik kalean gehiago praktikatuko banu, askoz gehiago aurreratuko nuke. Lantokian, esaterako, euskaldun batzuekin euskaraz hitz egiten dut, baina ez dizkidate akatsak zuzentzen.

- Euskara ikastearen alderik onena eta positiboena zein da zure aburuz?

Gauza on asko ditu. Jendearekin harremanak egiteko aukera ematen dizu, euskaraz hitz egiteko aukera bera oso positiboa da. Eta horretaz gain, euskal kultura eta nortasuna bermatzen laguntzen du, eta hori oso garrantzitsua da.

bar • restaurante
albéniz

A

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatuak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

EL

egunero

BAR
Kutxi

AGURTZANE IBARGUTXI,

32 urte. Irakaslea Bikain gimnasioan

- Nolatan sartu zinen kirol munduan?

Oso txikitatik hasi nintzen gimnasia erritmikoa egiten, 5-6 urte-ekin, eta orduz geroztik nire bizitza horretara bideratu dut. 16-17 bat urterekin gimnasia erritmikoa utzi nuen, gimnasiako tekniko goreneko titulua ateratzeko. Ikasketak amaitu nituenean Gasteizko Arantzabela ikastolan erritmika irakasteari ekin zion, Almudena Cid esaterako nik entrenatu nuen.

- Zer irakasten duzu Bikainen?

Aerobika, stepa, heziketa fisikoa, erditze osteko osatzea...

- Zer da erditze osteko osatzea?

Arrakasta itzela izaten ari da, amak jaio berri diren umetxoekin etortzen dira eta guztiok batera mugimenduak eta estimulazioa lantzen dugu. Izan ere, jaio berriek gihaireak oso tentsionatuta izaten dituzte eta ariketa hauek oso egokiak dira lasaitzeko, bai eta euren gorputzaren kontzientzia hartzeko ere.

- Aerobikean aditua zara. Zeintzuk dira aerobika praktikatzeko kontuan hartu behar diren aholkuak?

Aerobikaren inguruan ikerketa asko egin dira azken boladan, batik bat postura higiena lortzeko. Kontuan hartu behar da aerobika gero eta gehiago konplikatzeko

dela, eta lesioak oso maiz agertzen direla. Azken urteetan ikerketa asko egin dira nola zapaldu behar den, nola egin behar den jautzia eta abar ongi zehazteko.

Aerobika ongi praktikatzeko gehienez jota ordubete egin behar da eta pulsazioak % 60-80 bitartean mantendu behar dira; hortik gora anaerobika da, eta asko eginez gero kaltegarria izan daiteke.

- Zein motatako jendeak egiten du aerobika?



Gehienak emakumezkoak izan ohi dira. Gizonezko gutxi ematen dute izena, uste baitute emakumeen kontua dela hau. Baina esan behar dut aerobika egiten duten gizonezkoak oso onak izaten direla, agian neskak baino hobeak. Une honetan hamar gizon baino ez daude gure klaseetan.

- Animatuko al zenituzke gure irakurleak aerobika gitera?

Noski, aerobika oso dibertigarria da eta oso azkar pasatzen da denbora, ohartu barik. Lehenengo entrenamendurako oso gomendagarri deritzot, eta gainera ez duzu zertan izerditan blai bukatu.

**"Aerobika ongi
praktikatzeko
gehienez
ordubete egin
behar da"**

CELES DUARTE, 43 urte. Tarima dantza eskolako irakaslea



"Dantzak norberaren buruarekin harremanetan jartzeko balio du"

baterako dantza egitea eskatu zigun eta aretoko dantza ikaslea gomendagarria izan zitekeela pentsatu nuen.

- Orokorrean emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago atsegin dute dantza egitea, zuen eskolan ere hori islatzen da?

Bai, oso mutil gutxi daude hemen. Gehienak emakumezkoak dira, eta nahiko gazteak gainera. Emakumeok eta gizonek gaitasun desberdinak ditugu, eta hori dantzan islatzen da. Adinarekin ere gauza bera gertatzen da, 4 urtetik 40 urte bitartekoek dantza garaikidea nahia-go dute; 18tik 50 urte bitartekoek, aldiz, aretoko dantza.

- Euskal Herrian horrelako dantzak ikasteko ohiturarik ba al dago?

Ez, hemen poteoaren kultura zabalduago dago eta dantza egiteko kulturarik ez dago. Katalunian eta Ingalaterran, esaterako, oso zabalduta dago dantza egitea.

- Zuen klaseetatik dantza egiteko prestatuta ateratzen al da jendea?

Bai, dantza garaikidea ikasten dutenen artean, taldeak eta abar eratzen dituztenak ateratzen dira. Kontuan hartu behar da, gainera, gure helburua ikasleei bidea zabaltea dela, lehiaketetara joan eta sariak irabaztea....

- Aparteko baldintza fisikorik behar al da dantzaren munduan sartzeko?

Ez, bat ere ez. Norberaren gorputzarekiko harremana da, eta hori da baloratu beharrekoa. Gure asmoa da ikasleari oinarriak ematea bere mundua sortu dezan. Dantzak, aisialdi moduan hartzen bada, norberaren buruarekin harremanetan jartzeko balio du.

- Gutxienez zenbat ordu jaso behar dira astean urtebetean dantza egiten jakiteko?

Dantza garaikidea astero ordu eta erdiko bi egun ematen ditugu, eta aretoko dantza astean behin. Ostiraletan lokala irekita uzten dugu ikasleek aretoko dantza praktika dezaten.

- Zein da zure lana dantza eskolan?

Eskolaren zuzendaria naiz, eta beste bi irakaslek eta hirurok dantza garaikidea eta aretoko dantza irakasten ditugu. Nik helduei eta 7-9 urte bitarteko haurrei ematen dizkiet klaseak.

- Nola sartu zinen dantzaren munduan?

Ni antzerkitik nator. Antzerkian gorputz-espresioa oso garrantzitsua da eta horregatik ikusi nuen osagarriak izan zitezkeela biak. Dantza garaikidea eskola honetan bertan ikasi nuen. Aretoko dantza ikasteak ere antzerkiarekin lotura izan zuen. Izan ere, nire irakasleak ikuskizun

modan dago eguzkia...

Eguraldi onarekin, argia eta sentsualitatea nagusitzen dira, markak eramaten dira.



www.multiopticas.com
ORDAINDU EZAZU 3 HILABETETAN,
ERREKARGUR K GABE

VOGUE

Silhouette

Max Mara

Chloé

Ray-Ban

KILLER LOOP

D&G

MOSCHINO

modan daude...

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

VICKY ALCEDO,



- Noiz ireki zenuen lokala?

2001. urteko apirilaren 1ean nire mutilak eta biok ireki genuen.

- Zer dela eta animatu zineten?

Nik Durangoko kiroldegi batean lan egiten nuen. Hura ere soilik emakumezkoentzat zen eta hemen halakorik ez zegoenez, pentsatu nuen han funtzionatzen bazuen, hemen ere ongi joan zitekeela.

- Zein da emakumezkoen zuzendutako gimnasio baten helburua?

Zerbait diferentea eskaintzeko helburua dugu. Kontuan hartu behar da emakumeen artean konplexu asko daudela. Esaterako, neskei ez zaie batere gustatzen mutilek begiratzea kirola egiten ari direnean, arropa estua jartzea mutilen aurrean, eta abar. Gizonezkoak aurrean izanda emakumezkoek ez dituzte gauza asko egiten. Beraz, gure nahia da emakumeak etxean

Ikasten ari nintzen bitartean aerobik titulua atera nuen. Informatika ikasi nuen, eta ikasketak bukatzerakoan konturatu nintzen aerobika zela gehien gustatzen zitzaidana eta horri ekin nion.

"Gizonezkoak aurrean izanda, emakumezkoek gauza asko ez dituzte egiten"

- Zein jarduera eskaintzen dituzue hemen?

Aerobik mota guztiak: step, feet, cardio-box...

- Eta zein da arrakasta handiena duena emakumezkoen artean?

Bizikleta eta GAP jarduera. Tonifikatzeko balio du GAPak (ipurdia, abdominalak eta hankak).

- Zergatik?

bezala sentiaraztea.

- Zenbat denbora daramazu klaseak ematen? 8 urte.

- Zer dela eta hasi zinen?

Muby emakumezkoentzako gimnasioko irakaslea

Bizikleta, denbora gutxian gehien erretzen duena delako. Eta GAPa, tonifikazio kontuengatik.

- Hona datozen neskak, zergatik datoz?

Gehienak argaltzeko eta gihaireak gogortzeko.

- Batezbeste, zein adinetakoak dira?

25-30 urte bitartekoak.

- Nagusiagoak ez al datoz?

Oso gutxi, gehienak Gizarte Etxetara doaz, merkeago delako. Gizarte Etxekin lehiatzea ia ezinezkoa da prezio kontuetan. Gazteek, aldiz, nahiago dute hona etortzea, gainera ordutegi librea daukagu.

- Nola prestatzen dituzu klaseak

Aerobikeko koreografia egunero aldatzen dut, ez da behin ere errepikatzen. Egutegia gauza diferenteak egiten saiatzen naiz. GAPari dagokionez, bi egun ipurdiari dedikatzen dizkiogu, beste bi sabelari...

- Zenbat irakasle zarete?

Hiru.

- Eta zenbat ikasle?

Klase bakoitzeko 40 bat. Orora ehundik gora dira.





“Dantza egiteak adierazpen eta komunikazio gaitasunean laguntzen du”

MARGA ARROYO,

Traspasos dantza eskolako irakaslea

- Zein adinetakoa da?

Oso aldakorra da. Batezbeste 20 eta 30 urte bitartean ibiltzen dira, baina helduagoa den jendea ere badago. Hemen ez dugu mugarik jartzen, maila desberdinak daude eta norberak gusturago sentitzen den taldean egoteko aukera du.

- Lehen Capoeira irakasten duzuela aipatu duzu, zer da Capoeira?

Dantza, akrobazia eta arte martzialen nahasketa bat bezala definitu genezake. Brasilen du jatorria eta zuzenean jotzen den musikak lagunduta dantzatzeko da. Capoeira praktikatzeko dutenak gorpil batean parte hartzen dute, abesten, soinu-tresnak jotzen, jolastzen...

- Ikasleen artean dantzari irten den baten bat izan al duzue?

Bai, dantza taldeetan ikuskizunak ematen ari den jende asko Traspasosetik atera da. Damian Muñoz koreografoak, esaterako, hemen ikasi zuen.

- Zer esango zenieke GEUko irakurleei dantza egitera anima daitezkeen?

Dantza dibertitzeko planteatu dezatela, ez ikuspuntu profesional batetik. Ez dute aparteko ezaugarri fisikorik izan behar dantzan aritzeko. Nire ustez, musikarekin lan egiteak eta mugimendua taldeka sentitzeak adierazpen eta komunikazio gaitasunean laguntzen du.

- Zein motatako dantzak ikas daitezke Traspasosen?

Estilo oso desberdinak ikasteko aukera dago hemen: Dantza garaikidea, Aretoko dantza, saltsa, merengea, flamenkoa, Afrikako dantzak, Hip-Hopa, Capoeira...

- Noiz ireki zenuten eskola? Zergatik?

1985ean Traspasos Dantza Estudioa zabaldu nuen Mikel Gomez de Segurarekin batera. Denborarekin ikusi genuen irakastea eta ikuskizunak egitea bateragarriak zirela, eta izen bera duen Dantza Konpainia sortu genuen duela bost urte, baita antzerki konpainia bat ere.

- Eta zu, noiz eta nola murgildu

zinen dantzaren munduan?

Dantza betidanik gustatu zait. Antzerki Eskolan eman nituen nire lehen urratsak eta han nengoela dantza garaikidea irakasten zuen irakaslea ezagutu nuen. Beraz, antzerki eskolan urtebete eman ostean, dantzan murgiltzea erabaki nuen.

- Traspasos oso ezaguna da Gasteizen eta ikasle asko dituzue. Zein motatako jendea hurbiltzen da dantza ikastera?

Oro har musikarekin eta dantzarekin ongi pasatu eta dibertitzera datorren jendea izaten da. Eguneroko ohikeriarekin moztu nahi duen jendea izaten da, euren gorputza mugimenduaren ikuspuntutik landu nahi duen jendea.



MIKEL DE LA PRESA,

27 urte. Trikitixa irakaslea Musiketxean

- Noiztik irakasten duzu trikitixa?

Duela zazpi bat urte. Hasieran akordeoi handia jotzen nuen, baina kalejira girorik ez zegoenez, trikitixa munduan sartu nintzen. Musiketxean 8 urtez ibili nintzen dantza egiten, gero trikitixa klaseak jasotzen hasi nintzela. Hiru urtez ikasi eta gero irakasten hasi.

- Zenbat ikasleri ematen diozu klase?

Astean 20 ordu ematen ditut, 44 ikasleri orora. 7 urtetik 12 urte bitarteko gazteei irakasten diet. Ikasle gehienak, % 80 inguru, neskak dira; ziurrenik adin horretako mutilek nahiago dutelako futbolearen aritzea.

- Trikitixa ikasteko zenbat

***“Trikitixaren alderik
hoberena sortzen
den giro ona da”***

maila daude?

Une honetan Musiketxean programa berria egiten ari gara, eta bi plan daude: 18 urte gorakoek bost kurtso egiten dituzte eta txikiek, berriz, hamar-hamabi urte inguru eman dezakete ikasten.

- Zer dela eta gustatzen zaizu horrenbeste trikitixa?

Nire irudiko, inportanteena giroa da, oso giro ona baitago trikitixa munduan. Araban, gainera, izugarrizko ‘booma’ egon da azken urteetan, jende asko animatu da

trikitixa ikastera. Kontserbatorioko beste instrumentuekin ez da halako girorik sortzen. Trikitixa parrandarekin, jai-giroarekin lotzen dut.

- Araban gero eta zaletasun handiagoa dagoela diozu... Bai, halaxe da, azken urteetan gorakada izugarria egon da. Ez dakit noiz arte iraungo duen, baina irakasleok momentuz lana soberan dugu.

- Lanbide bezala irteerarik ba al du trikitixa jotzeak?

Oso zaila da lanbide gisa hartzea eta trikitixaz bizitzea. Aukera dago irakasle izateko, baina bestela oso gaitza da. Ondo jotzen duenak aukerak izan ditzake klaseak emateko edo herriz herri jotzeko, taldeka. Gure nahia da jendea trikitixa munduan sartzea.

• **ARAIKO UMORE ANTZERKIAREN VIII. JAIALDIA**

Abuztuaren 14tik 18ra

• **ARABAKO XVII. ORGANO JAIALDIA**

Abuztuaren 6tik 10era:
Oion, Biasteri, Aramaio,
Eltziego eta Uriona

• **BECERRO DE BENGOA XIV. SAIKERA-LEHIAKETA**

Epea: irailak 6

Antolatzailea eta informazioa: Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila

• **GABRIEL ARESTI XX. IPUIN-LEHIAKETA**

Antolatzailea eta informazioa: Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo Saila

• **MIGUEL DE UNAMUNO SAIKERA LEHIAKETA**

Epea: azaroak 15

Antolatzailea eta informazioa: Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo Saila

• **PEDRO DE ATARRABIA XIV. LITERATUR SARIKETA**

Kontakizun laburrak

Epea: irailaren 27a

Antolatzailea: Atarrabiako Udaleko Kultura Zerbitzua

Tel.: 948332659

ccvillava@cin.es

• **II. UMORE GRAFIKOKO NAZIOARTEKO LEHIAKETA:**

“TEKNOLOGIA BERRIAK”

Partehartzaileek teknologia berrien gaineko (internet, biologia, espazioa, telekomunikazioak, medizina, etab.) umore grafikozko marrazkiak aurkeztu beharko dituzte

Epea: Azaroaren 4a baino lehen

Informazioa: Barakaldoko Udala

• **JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA**

Ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta

botanika
Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dira
Epea: irailaren 10etik 27ra
Informazioa: Irungo Udala-Euskara Zerbitzua.
943649250.
euskara@irun.org.
www.irun.org

• **JUAN SAN MARTIN BEKA 2002**

Antolatzailea: Eibarko Udala, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzaz

Ikerketa esparruak: 2002an Artearen Historia eta Historia

Epea: irailaren 9tik urriaren 10era

Informazioa: Eibarko Udala

• **JAKINET. EUSKO IKAS-
GAIETAN IKASTAROA INTER-
NET BIDEZ. 2002-2003**

Antolatzaileak: Eusko Ikaskuntzaren Asmoz

Fundazioa eta UNED (UNEDen berezko titulua) Ikastaroaren iraupena: 2002ko urritik 2003ko ekainera
Matrikula epea:
- Aurrematrikula: irailak 30
- Matrikulazioa: urriak 1-15
Informazioa: 945231552 / eusko@infonegocio.com / www.asmoz.org/JAKINET
Beste ikastaroak: www.asmoz.org

• **“ARABAKO GORRAK” ELKARTEA: KEINU-HIZ-
KUNTZA KOMUNIKAZIO IKASTAROK.**
Berau ezagutzeko interesa duen edonori zuzendua: irakasleak, logopedak, senideak, ikasleak...
Urritik maiatzera (4 ordu astean). Maila desberdinak. Plaza mugatuak
Informazioa: 945286948

GEU AZOKA

• **SALMENTAK-ALOKAIRUAK:**

Garaje plaza bat salgai. San Cristobal auzoan. 945137195-606658122

Kotxe bat salgai: Seat Ibiza, VI-L. Salneurria: 600.- euro. 615788283 (Karlos)

Pisu bat salgai Antiguu auzoan, Donostian, hondartzatik gertu. 943799202 (arratsalde)-652751947

Apartamentua errentan gune naturista batean: Vera-Almeria. Hondartza naturista. Hornitua: garbigailua, mikrouhin-labea, telebista, terraza eta igerilekua. 657739425

• **UMEAK-ETXEKOLANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANA:**

Neska bat behar da irailetik aurrera goizez 4 urteko umea ikastolara eramane eta ekartzeko, baita etxeko lanetarako ere. 945143686

Tabernari euskalduna behar da. Eskaintzen dugu: Gizarte seguran-

tzan alta, ostalaritzako konbenioa (urtean 15 paga), diru baldintza onak. Deitu 94201918 edo 946816558

• Geu elkartean monitore euskaldunen lan-poltsa osatzen ari gara irailetik aurrera proposamen berrietan lan egiteko. Bidali curriculum txiki bat postaz edo e-postaz.

Arduraduna: Josune

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsalde, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

EGUNOSUZ-GOIZEZ-ARRATSALDEZ-GAUZ-ASTEBURUAK

*ILAZKI. Ordutegi guztiak, 945172037

*ESTITXU. Ordutegi guztiak, 651706739

Euskharan Elkartea



**IkAsTuRte BeRRiRaKo
EuSkArAzKo KuLtuR EskalNtZA**

Uda an ere euskara rekin joan ke

**IKASTURTE BERRIRAKO
MATRIKULA 2002/2003**

Ohiko Tailerrak:

Txalaparta, Trikitixa,
Bertzolaritza, Panderoa,
Perkusioa.

Tailer berriak:

Margoa eta marrazketa
Keramika, Masaia,
Esperantoa.

MINTZA-PRAKTIKA

Epea:
Matrikula egiteko epea irailean
zabalduko da.

kurtso hasiera: URRIAN

Mintza-Praktika Uda 2002

☐ Uztaila ☐ Iraila

ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN
20:00etatik 21:30etara

Matrikula: 20 euro.

INFORMAZIO GEHIAK:

EUSKHARAN ELKARTEAN
Benito Pe. Galdia enparantza (AMAI)
ARABAKO FORUA. TEL: 945 22 82 75

HIRURAK jatetxea, aukerarik naturalena

**Kaixo, GEU ALDIZKARIKO irakurle-
ok!:**

**Lerro hauen bitartez Hirurak
Jatetxeak urrats berritzaile bat eman
eta "ekologiko" izatera salto egin
duela helarazi nahi dizuegu.**

Zer esan nahi duen "jatetxe ekolo-
gikoa" k?: elikagai ekologikoen alde-
ko apustu argia egin nahirik, gure
eskaintza guztia horietan oinarrituko

dugula; platerren prestakuntzarako
tratamendu kimiko artifizial eta
pozoingarririk pairatu ez duten elika-
gaiekin soilik lan eginez.

Izan ere, egunez egun, elikagai
eta beste hainbat produktu ekologi-
koren eskaintza gero eta zabalagoa
den arren, ez da, orain arte, hormona
eta pozoinez tratatu gabeko elika-
gaiak dastatzeko aukera ematen duen
jatetxe eredu askorik.

Gainera, elikaduraren kontzeptu
natural, ireki eta osasuntsuagoari
egokitu nahirik, eguneko menuan
zein kartan, aukera barazkijale zein
haragijalea eskainiko ditugu; ohiko
platerak dastatzeko aukera emateaz
gain, munduko beste herrialde ba-
tzueta eta kutsu berriko platerekin
jokatuz.

Laster arte!

Sukaldaritza naturalaren txokoa

Ateak irekitzeaz gainera, Hirurak Jatetxe Ekologikoak ez du
GEUzaleen etxeetara iristeko aukera galdu nahi. Horregatik hile-
ro-hilero gure berri izango duzue, ale honetan estreinatzen
dugun sukaldaritza naturalaren orrialde honen bidez. Elikadura
energetikoaren filosofiari jarraiki, hilez hile eta urtaroen zein
denboraldiko produktuetan erreparatuz, errezeta desberdinak
ikasteko aukera izango duzue, zuek ere etxean sukaldatuz eta
dastatuaz goza zaitezten.

Udako beroan gure gorputzak abaildura egoerari aurre egin
ahal izateko jaki errefresagarriak eskatzen ditu. Gaurko erreze-
ta hotza eta gozoa bai, baina errefresagarria ez dakigu dei
dakioken. Baina, tira, hemengo uda oso itogarria ere ez da, ez
al da hala? Beraz, aproposa eta askorentzat bitxia gaurko erreze-
ta.

Andaluziatik zuzenean ekarria, bazkaria ala afaria hasteko
modukoa eta erraz-erraza.

ALMERIAKO "AJOBLANCO" ALMENDRA ETA BARATXURI ZOPA HOTZA

Osagaiak: (4 lagunentzat)

100 g. almendra gordin

Baratxuri ale bat, barruko ernamuina kenduta

80 gr ogi mami

Goilarakada bat ozpin

Edalontzi erdia oliba olio

Ura eta gatza

Denbora: 10 minutu +
hozkailean ordubete

Prozedura:

Ogi mamia ur hotzetan jarriko dugu.

*Almendrak errazago zuritzeko, minu-
tu batzuk ur epeletan jar ditzakegu.
Ondoren hatzamarrekin igurtziko ditugu,
erabat azalik gabe irten daitezten.*

*Baratxuriaren zaporea gehiegizkoa
izan ez dadin, nahi izatekotan, uretan 5
minutuz egosi daiteke. Hala ere, jatorriz-
ko errezetan baratxuria gordinik uzten
da.*

*Irabiagailuaren ontzian, pixka bat
xukatu ostean, ogi mamia, baratxuria eta
almendrak jarriko ditugu, guztiak ongi
zuriturik. Gainera olio eta ozpina ere
gehituko diogu. Ondo irabiatzen dugu-
nean gelditzen den ore zuriskari gatza
botako diogu, ongi nahastuz, eta hozkai-
lura sartuko dugu ordubetez.*

*Jateko orduan oreari ur hotza gehitu-
ko diogu krema finaren tankera hartu
arte. Zopa horretarako bereziak diren
katiluetan zerbitzatzen da.*

*Garaia denean, plater bakoitzean
mahats zuritu batzuk jartzea ere
gozo-gozo gelditzen da.*

Jaten duguna garelako

Gure produktu
guztiak % 100
ekologikoak

Kutxi, 26
Tfnoa.
945 28 81 47





Bergonda

Bergonda 2002



euskara añanan mingainean
euskara añanan mingainean

Irailaren **22** de Septiembre

herri bazkaria • ken 7 • txoznak • buruhandiak • abereen erakusketa
pailazoak • etsaiak • txikilandia • gaiteroak • dantzak • bertsoak
txistulariak • trikitixa • erraldoiak



Añanako Eskualdeko
Euskararen aldeko
VII Jaia




VII Fiesta
por el Euskara de
la Cuadrilla de Añana



Lantarongo Udala

Errioxa arabarrak jai zoriontsuak opa dizkizue



Eskuernaga - Villabuena (ARABA)